

ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 21a / 619. zenbakia

2003KO AURREKONTUA

Atzoko bilkuran eztabaidatu zuten aurtengo aurrekontua: 27.371.113,75 euro zehaztu ditu Ogasun batzordeak aurtengo beharrei aurre egiteko. Kopuru horren barruan Iturbide egoitzaren eta AUKEAren diru partidak sartu dituzte.

Kultura

3.616.199 euro
%14,2

Udal Zerbitzuak

7.093.364 euro
%27,9

Euskara

1.136.504 euro
%4,5



Pertsonala

1.866.165 euro
%7,4

Osasuna

2.126.234 euro
%8,4

Finantza zorra


1.698.255 euro
%6,7

Hirigintza

3.903.921 euro
%15,4

ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA BEREZIA /7 • KIROLA: LIDERRA, ATXABALPEN /10

EDERTASUN GIDA/24



**Laster,
GIDA 2003
zure etxean!**

**Zure herriko
denden eta partikularren
telefonoen gida.**

Gida osatuena,
erabilgarriena eta berriena.

KALEINKESTA/ Herriko tabernek beteten dittue arauak?




JAVI MAYOR
Ikasle

Tabernetara egunez jueten naz, kafie hartzera-eta, baiñe gabetan ez dot juergarik egitten; hortan, ezin dot gauza askorik esan. Lehen, behintzet, musikie altu egoten zan, eta oin be...



XABIER MARTÍNEZ
Langillie

Ordutegixe ez da askorik errespetetan. Mondraguera etorri izen nazenien ez jat pentsau musikie oso altu euenik. Bergaran bezinuek asko kejetan die, eta esan-eko neuke arrazoi barik dala.



JORGE GIL
Langillie

Neure ustez, tabernak goixegi zerretan dittue. Geuretako musikie ez da altu egoten, baiñe taberna gainien bizi danandako, seguru baietz. Bezino batzuk arrazoiakin kejetan die.



GAINTZANE ETXEBARRIA
Langillie

Nik ez dot uste arazo haundirik dauenik. Pentsetan dot ordutegixe ondo dauela, eta zarata kontue kontrolaute dauela. Ez dakit seguru, baiñe tabernak insonorizaute dauzela esango neuke.



JONE ETXEBARRIARTEUN
Langillie

Tabernak goixegi zerretan dittuzte, baiñe goixen bizi dienak be errespetau egin biher die. Insonorizaziñue ondo kontrolau biherko leukie, iñork ez dau gure zaratiekin bizi.



JANET BRAGADO
Ikasle

Danetik dau, batzuk errespetau egitten dittue eta beste batzuk ez. Neure ustez, ordutegixe oso mugatute dau. Ondo insonorizaute dauzenak beranduago zerrau biherko leukie.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK KANTOI BERRIA MAALAN Aspaldian, Maala kaleko etxe baten egiten dabilzan konponketa lanen erruz, kantoi bat itxi egin behar izan dute. Horren ordez, eta Azoka plazatik Maalara joateko, aspalditik itxita zegoen beste kantoi bat -itxi dutenarekiko paralelo- berreskuratu eta oinezkoendako zabaldu dute. Kale horietatik ibiltzen den jende guztiak ziur eskertuko duela.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 8

Salaketa gehiago

GI-2620 errepedea dela-eta salaketa gehiago jaso ditu Udalak, ibilgailuetan kalteak egiten dituelako.

GAZTEAK / 15

Gazteen arteko lankidetzak

Hainbat gazte taldek Arrasateko Gazteen Kontseilua eratu dute, lankidetzak bultzatzeko.

ZAHARRAK / 17

Nagusilan elkarteak

Joan den eguaztean, Nagusilan elkarteak aurkeztu zuten. Arrasaten hasi eta ibarrera zabaldu gura dute.

ASTEKO DATUA

27.371.113

EUROKO AURREKONTUA IZANGO DU UDALAK 2003AN

27.371.113 euroko aurrekontua izango du Arrasateko Udalak 2003an. Diru kopuru horretatik, 1.201.194 euro Aukearendako izango dira eta 1.775.183 euro, Iturbide egoitzarendako.

BESTE EKESANA

Frankismo garaian kartzela ezagutu zuenak esaten digu orduko kartzelan gaur baino hobeto egon zirela, nahiz eta uniforme-trajez jantzita ibili behar. Boqui haiek faxistak zirela onartzen zuten, eta psikologikoki ere onartuta zuten. Harremana ere zuzena eta normala zen. Gaurko aingeruekin tentsio handia daukagu, eta edozer gerta dakiguke. Hauek, ahoz, demokratikak direla diote, baina euren portaera beste haiena baino faxistagoa da, bai preso sozialekin bai gurekin (...). Horiek dira sistema kapitalistak azken 30 urteotan egindako hobekuntza batzuk: kartzela sistemari gizatasuna kendu, preso politikoekin bizimoldea gogortu, sakabanaketa zigorra ezarri, eta 40 urteko katea luzatu”.

JESUS MARI ZABARTE
‘GARA’/03-02-17

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



Zopa eta postrea

Azkenotan nola Euskal Herrian, hala mundu mailan bizi dugun egoera nahaspilatuak, zeresan asko eman diezaguke gu guztiori: Irakeko gerra, euskal presoaren aurkako erasoak, AHT-a, kapitalismoak Amaluraren aurka egin berri duen sarraskia (*txapapotea*, alegia), euskararen egoera, hauteskunde aurreko egoera aldrebestua, kriminalizazioa... Urrutiko (eta ez hain urrutiko) arazo horietaz gain halere, herri mailan bizi dugun errealitateak sortzen dizkigun kezka ere badaude: hemengo proiektuak, hango gabeziak eta desorekak... alta, mundu madarikatu honetan buruhaustez betetako menua da eskaintzen zaiguna. Eta urrutiko edo hurbileko arazo hauek guztiak itxurazko zoriontasuna estaltzen digute, eta “lapikoa” berotzen, sarri askotan suak erretzen gaituelarik.

Arazo horiek guztiak ugalduz doazen mundu hone-

tan, desarrollismoa, inperialismo basatia, konpetentzia, indarkeria, matxismoa eta edertasuna (dirua buru dutela) bihurtu dira ardatzak, bizitzaren zio nagusiak. Eta sistema kapitalista honek oinarri horiekin eskaintzen digun menua da egunero jaten duguna, “lapikoa” berotzen diguna. Hala ere, lapiko horretako zopa beroan gustura bizi den asko dago; etxebizitza ederra, auto mundiala, kreditu txartela, emakume liraina, dirua eta bizio ugari eskaintzen baitira

menuan. Zoparen ondotik datorren postrea, ordea, arestian aipatutako mundu krudelaren irudia da, gutxi batzuk zopa jatearen ondorioa, inork gutxi aho-sabaian nabaritutako duen garraztasuna, baina ia gehienek irentsi beharko duten kaka. Horregatik, zopari muzin eginda postre beltza ekiditeak merezi du! Mundu hobe bat posible delako!! Oraina eman digutenei etorkizuna zor diegulako.

“Zopa beroaren ondotik datorren postrea aipatutako mundu krudelaren irudia da, askok irentsi beharko duten kaka”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bollnaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritza
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 21**
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65
- ZAPATUA, 22**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- DOMEKA, 23**
Azkoaga. Iturriotz 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 24**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 .. 943 79 22 26
- MARTITZENA, 25**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 26**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUENA, 27**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Iguualatorria. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTERRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

| | |
|---|--|
| San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (elebiduna) | San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) | |

OHARRAK

ARATUSTEETAKO KONTZERTUA
Otsailaren 28an, egubakoitzean, Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua emango dute, eta moztortu egingo dira. Emanaldia 18:30ean hasiko da, Musika Eskolan.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, hilaren 27an, *Spider* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

UMEEN SOROSPENA
Arizmendi Ikastolako Haur Hezkuntzako arduradunek Arizmendiko guneetako aiton-amonendako lehen sorospenak izeneko formazio saioa antolatu dute. Otsailaren 27an egingo dute, Umezaintzan.

ANDALUZIAR EGUNA
Otsailaren 28an, egubakoitzean, Andaluziako Eguna ospatuko dute Al-Andalus elkarteak. Egubakoitzean eta zapatuan hainbat ekitaldi izango dituzte elkarteak. Zer ikusi eta zer entzun egongo da andaluziarren elkarteak.

PANTXOA ETA PEIO
Otsailaren 28an, egubakoitzean, Pantxoa eta Peiok kontzertua emango dute Amaia Udal Antzokian. Emanaldi hori Korrika Kulturalaren ekitaldien barruan antolatu dute eta 22:30ean izango da.

AEDrenAGENDA

NEGUKO OLINPIADAK
Bihar, zapatua, Neguko Olinpiadak egingo dituzte. Goizetik iluntzera arte, herri kirolak izango dira Herriko Plazan eta Uarkape pilotalekuan.

SENDABELARREN GAINEAN
Sendabelarren gaineko taldea eratu dute. Interesa baduzu, jo AEDra.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Cerrajerako langileek protesta egin zuten

Cerrajerako berrogeiren bat langilek lantegirako pasabidea itxi zuten. Langileek, ekintza horren bidez, korporazioa eta haren presidentea aberasten ziren bitartean Cerrajera desagertzeko zorian zegoela adierazi gura izan zuten. Lantegirako pasabidea ordu erdiz itxita eduki zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txatala"



Edozein materialekin egindako adabakia, ipinkia, txaplata. — *Egur puxketa bat ero, beste erozer gauza, txataltxo bat.*

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Herri anitza, Herrian hitza plataforma

Eguaztenean, hilaren 26an, sortu berri den Herri anitza, Herrian hitza plataformako kideak gurekin izango ditugu. Gizarteak bizi duen salbuespen egoera salatzeke eta Euskal Herriak dituen eskubideak babestu guran sortu da plataforma. 09:30ean duzu hitzordua. Bestalde, astelehenean, hilaren 24an, haurdunaldi garaian kontuan hartu beharreko aholkuak emango dizkigu Amaia Díaz de Monasterioguren dietistak, 10:00etan.



Urretxindorrek musika taldea

70eko hamarkadan arrakasta itzela izan zuen Bergarako Urretxindorrek taldekoak izan ditugu Arrasate Irratian. Aspaldiko garaiak gogora ekarri eta asteen bertan kaleratu duten diskoaz berba egin digute. Entzuterik izan ez bazenuen, zapatuan eta domekan 11:00etan duzu aukera. Horrez gainera, Unai Urretxo tronboi jotzailearekin eta Gazte Kontseiluko kideekin egin ditugun solasaldiak, asteburuko gainbegiratuan.

HAUGIROA!

| | | |
|----------------------------------|-----------------|----------|
| MINIMOA Martitzena, 18 | -5 °C | |
| MAXIMOA Eguaztena, 12 | 9 °C | |
| ASTEKO EURIA (l/m²) | 12,3 L | |
| | Max. Min. Euria | |
| Eguaztena, 12 | 9 °C 5 °C | 3,9 l/m² |
| Eguena, 13 | 7 °C 5 °C | 6,1 l/m² |
| Egubakoitza, 14 | 7 °C 4 °C | 1,6 l/m² |
| Zapatua, 15 | 4 °C 2 °C | — l/m² |
| Domeka, 16 | 4 °C -2 °C | — l/m² |
| Astelehena, 17 | 3 °C 2 °C | 0,2 l/m² |
| Martitzena, 18 | 9 °C -5 °C | 0,5 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: elemerideak, zozketak, zorian agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- ASTELEHENA**
20:00 **MIR**: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.
- MARTITZENA**
20:00 **Txortxorrien**: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.
- EGUBAKOITZA**
19:00 **Planing Prest**: Deiane Arrieta
- ZAPATUA**
11:00 **Asteko elkarrizketak**: Urretxindorrek, Larratiz Ugarte kriminologoa, Nagusilan elkarteak...
- DOMEKA**
11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

Korrika batzordea eratu dute

Egunak arrapaladan pasatzen dira, eta Korrikari ere uste baino lehen iritsiko zaio Debagoienetik eta, horren ondorioz, Arrasateetik pasatzeko eguna. Euskararen aldeko lasterketaz gainera, euskaltzaleek kultura ekitaldiak antolatu gura dituzte Korrika datorrenerako. Hori dela eta, astelehenean, batzarra egin zuten Arrasateko kultura elkarteetako eta ikastetxeetako zenbait ordezkariak. Hurrengo batzarra martxoaren 3an izango dute; hortaz, batzarrera agertu ez ziren kultura elkarte nahiz ikastetxeetako ordezkariak badute beste aukera bat martxoaren 3an.

Arrasatearra Bilboko Udal Bandarekin

Unai Urretxo arrasatearrak Bilboko Udal Bandarekin kontzertua eskaini zuen domekan Arriaga antzokian. Tronboia jotzen du Unai Urretxok, eta Bilboko Udal Bandarekin bakarlarri ibili zen. Gaur egun, Ameriketako Estatu Batuetan ikasten du arrasatearrak, Bostongo Unibertsitatean. 2000. urtea ezker dago han. Ameriketako Estatu Batuetara joan aurretik Euskadiko Gazte Orkestran ibili zen tronboia jotzen.

Arriagako kontzertuaren ostean, Bostonera itzuli da tronboi jotzaile arrasatearra.

Josu Cifuentesi laguntzeko txartelak

Josu Cifuentes 12 urteko bergararrari laguntzeko kanpaina abiarazi dute. Leuzemia du Josu Cifuentesek, eta transplante egiteko zain dago. Bitartean, ebakuntzaren gastuak ordaintzen laguntzeko kanpaina abiarazi dute haren familiakoek eta lagunek.

Elkartasun dei hori Arrasatera ere iritsi da, eta herriko zenbait lekutan Josu Cifuentesen aldeko txartelak ipini dituzte salgai.



Istripu ikusgarria Kanpanzarko bidean

Istripu ikusgarria gertatu zen joan den egubakoitzean, hilaren 14, Kanpanzarrerako errepidean. Argazkian ikusten duzuen bezala, autoa bidetik irten eta errekarara jausi zen. Suhiltzaileek joan behar izan zuten gidariari irteten laguntzeko. Zorionez, gidariak ez zuen zauri larrik izan.



USTEAKUSTE / Iker Barandiaran

Adierazpen askatasuna

Azkenengo unean idatzia aldatu behar izan dugu, ez zen gutxiagorako.

Eguazten gauean Audientzia Nazionalak agindutako operazio baten bitartez, Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurka egin zuen. Egunkari horretan ardurak dituzten hainbat lagun atxilotu zituzten, eta badirudi *Euskaldunon Egunkaria* itxi dezaketela

–idatzi hau idazteko unean, eguen goizean, komunikabide horren eraikinak prezintatuta zeuden–. Audientzia Nazionaleko Juan del Olmo epaileak *Euskaldunon Egunkaria* ETArekin lotu du.

Dagoeneko ez gaitu ia ezerk harritzen. *Egin* egunkaria, *Egin* irratia eta *Ardi Beltza* aldizkaria itxi zituztenean ere hori egiteko argudio eta egozte mordoa ezagu-

tzera eman zituzten, baina oraindik ez dute ezer frogatu. Horrek ez du axola. Helburua hedabide horiek ixtea da.

Zoritxarrez, halako ikerketak egitea ekidin ezin daitekeen arren, hedabide bat ixtea azkenengo gauza izan beharko litzateke. Hala ere, ustez, helburu nagusia horixe da. Horrela jokatzen jarraituko dute, eta enbarazu egiten dien beste edozein hedabide ere itxi egingo dute. Adierazpen askatasuna!!

ASTEKOIRUDIA



ENEKO AZKARATE

IZEN ETA IZAN HANDIKO PERTSONAK ARRASATEN

Eguaztenean, Euskal Autonomia Erkidegoan izen handia duten pertsona dezente batu zen geurean. Batetik, Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Jon Imaz Ulma Packaging enpresan izan zen langileei saria ematen. Eta Eskoriatzako Fagor Etxetresna Elektrikoen enpresa ere bisitatu zuen, kasu horre-

tan, kalitatezko Q ziurtagiria emateko.

Horrez gainera, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria ere hemen izan genuen. Ikerlanen eraikin berria inauguratzera etorri zen. Argazkian ikusten denez, pertsona ospetsu guztiek bat egin zuten Ikerlango egoitzan. /UBANE MADERA

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABAleta

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

EKONOMIA/ 2003ko aurrekontua

2003ko aurrekontuko partidarik handienak, Cerrajerarako eta liburutegi berrirako

UBANE MADERA


27.371.113,75 euro. Horixe da Arrasateko Udalak aurtengo ekitaldirako zehaztu duen aurrekontu orokorra. Kopuru horretatik, 25.373.460,41 euro Udalarendako izango dira, 1.775.183,01 euro Iturbiderendako eta 1.201.194,19 euro, AUKEArendako.

Iazkoa baino %1,11 handiagoa da aurtengo aurrekontu orokorra. Hain justu, udal aurrekontua %0,68 handiagoa izango da; AUKEArena %4,2 handiagoa eta Iturbidekoa %8,67 handiagoa. Iaz bezala, aurtengo ere Zerbitzu batzordearendako izango da partidarik handiena: 7.093.364,76 euro, hain zuzen ere. Horren barruan, partidarik handienak bideak garbitzeko, uren partzuergoko kuota ordaintzeko, Mankomunitaterako eta herriko lorategiak eta parkeak zaintzeko izango dira.

HIRIGINTZA BIGARREN

Hirigintza da diru gehien jasoko duen bigarren batzordea: 3.903.921,11 euro. Cerrajera urbanizatzeko izango da kopururik handiena, eta Garibaiko lur azpiko aparkalekuak ere diru dezente jasoko du. Era berean, nabarmentzekoa da partida bi gorde dituztela auzoetan lanak egiteko.

Kultura batzordea dator gero, 3.616.199,43,42 euroko aurrekontuarekin. Ospitale zaharrean egin gura duten liburutegi berriak hartuko du partidarik handiena. Gainerako batzordeek aurrekontua-



ren %10etik beherako kopuruak jasoko dituzte (goiko grafikoan).

Hori proposatu dio Ogasun batzordeak udalbatzarrari. Hain justu, atzo batu ziren zinegotziak aurrekontua eztabaidatzeko. Eta, artikulua hau idaztean batzorra egin barik izan arren, seguru aski onartu egingo dute, Sozialista Abertzaleek eta EAK baiezko botoa eman diote-eta. PSE-EEK, berriz, kontra bozkatu du, eta honako proposamen hauek egin ditu, besteak beste: kale borrokak eta terrorismoak eragindako kalteak ordaintzeko laguntzak ematea eta Udalbiltzarendako eta Eudimarendako diru partidak kentzea.

7.172.802,61 euro inbertitzeko

HAUEXK DIRA ZEHAZTU DITUZTEN INBERTSIO NABARMENENAK:

Ospitalean egingo duten liburutegi berria: 1.600.000 euro/266.217.600 pezeta.
Cerrajerako urbanizazio lanak: 1.200.000 euro/ 199.663.200 pezeta.
Garibaiko lur azpiko aparkalekua:800.000 euro/ 133.108.800 pezeta.
Gaztetxea eta lokal osagarriak: 600.000 euro/ 99.831.600 pezeta.
Erguin berriro urbanizatzeko: 392.000 euro/ 65.223.312 pezeta.
Musakolako zaharren etxerako: 240.400 euro/ 39.999.194 pezeta.
Alde zaharreko plan berezia: 200.000 euro/ 33.277.200 pezeta.
AUKEAren inbertsioak: 151.000 euro/ 25.124.286 pezeta.
Deba ibaia bideratzea eta Zabaletako zubia: 150.807,54 euro/ 25.092.263 pezeta.
Eguzki panelak instalatzea: 136.800.000 euro/ 22.761.605 pezeta.
Auzoetako inbertsioak: 120.000 euro/ 19.966.320 pezeta.
Makatzenarako: 120.000 euro/ 19.966.320 pezeta.


Hirigintzarendako beharrean, Zerbitzuendako izango da diru kopururik handiena

Liburutegi berria egiteko eta Cerrajera urbanizatzeko dira inbertsiorik handienak

Garibaiko aparkalekuei eta erabilera askotariko eraikinari ere diru dezente dagokie

ASaren eta EAren aldeko botoekin egin dute aurrekontua; PSE-EEK kontra bozkatu du

Iazko eta aurtengo aurrekontuen arteko alderaketa



JAITSIEREN ETA IGOEREN ZERGATIA:

Grafikoan ikusten denez, zenbait batzordetako partidak dezente jaitsi dira iazko aurrekontuarekin konparatuta. Adibidez, Gazteria batzordeko partida %36,5 txikitu da. Horren arrazoia da Uarkapen egiten dabilzan erabilera askotariko eraikina egiteko diru kopururik handiena iaz gastatu zela; hortaz, aurtengo behar gutxiago daude batzorde horretan. Era berean, Auzo batzordearen diru partida %28,6 jaitsi da aurtengoan. Kasu horretan, Santa Marinako aparkalekua egiteko dirua behar zen iaz, eta horregatik gertatu da aurtengo jaitsiera. Eta, berriz, Ingurumen batzordearen aurrekontua da aurtengo gehien igo dena: %32,3, hain justu. Kontua da herriko zenbait lekutan eguzki panelak ipintzeko asmoa duela Udalak, eta horretarako 136.800.000 euroko inbertsioa egingo duela.

OSOKO BILKURA / Bilkura berezia egin du udalbatzarrak

Aurrekontua eta mozioak landuko dituzte batzarrean

UBANE MADERA

Bilkura berezia egin zuen atzo udalbatzarrak, besteak beste, 2003ko aurrekontua eta hiru mozio lantzeko.


EAJ ETA EA

Izan ere, joan den astean, PSE-EEK iragarri zigun Joseba Pagazaurtunduaren atentatua gaitzesteko mozioa aurkeztu zuela. Eta oraingo astean gauza bera egin dute EAK eta EAJk.

EAK bost puntuko mozioa aurkeztu zuen. Atentatua salatu zuen, indarkeria jasaten duten herritarrei Arrasateko Udalaren elkartasuna adieraztea eskatu zuen, ideiak adierazteko askatasuna exijitu zuen, ETArri armak uzteko exijitu zion, eta edozein indarkeria edo ekintza terrorista -edozein motatakoa dela-ere- errefusatzeko ez dutenen jarrera zentsuratzeko eta salatzea ere eskatu zuen.

EAJk hiru puntutan atentatua gaitzetsi zuen, erasoaren egileei eta babesleei hausnarketa eskatu zien, eta mota horretako ekintzen aurrean sumindura adierazi zuen.

Baina artikulua hau idaztean batzarra egin barik zegoen, eta ez dakigu zein mozio onartu duten.



ARRASATE PRESS


Ideiak libre adierazteko eskubidea exijitu zuen EAK bere mozioan.



2003ko gida komertziala kalean dago

Joan den astean hasi ziren banatzen aurtengo gida komertziala; hortaz, egunotan iritsiko da herritarren etxebizitzetara. Bost herritako telefono zenbakiak agertzen dira gidan, partikularrenak barne. Horrez gainera, nabarmendu behar aurtengo gida osoa koloreetan dela.

Goiena Komunikazio Zerbitzuek argitaratu dute gida. Hala, Goienako Publizitate Sailak eskerrak eman gura dizkie gida egiten parte hartu duten bezero guztiei. Bestalde, norbaitek gida jaso gura badu, Saiolango eraikineria joan beharra du. /U.M.



Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila



Luizia laster konpondu ezean, gaineko errepidea hondoratzeko arriskua dago.

HIRIGINTZA/ A-20 arean luizia izan da

Laster konponduko dute Musakolan izandako luizia

UBANE MADERA

Musakolako A-20 gunean (industrialdean) luizia izan dela jakinarazi dio Hirigintza batzordeak Gobernu batzordeari. Egoera aztertu, eta Gobernu batzordeak erabaki du lehenbailehen konpondu behar dela ingurua. Deza 90, SA enpresak konponduko du.

Musakolan, JMA enpresa dagoen lekutik gertu izan da luizia; argazkian ikusten denez, errepidearen azpiko aldean, Deba

ibaiaren bazterrean. Seguru aski, orain dela gutxi izandako euriteek eragindakoa da luizia. Arrasateko Udaleko Zerbitzu Teknikoak duela gutxi jabetu ziren gertatutakoaz eta berehala jakinarazi zioten Udalari, neurriak har ditzan.

Ikuste den moduan, luizia ez da oso handia edo ikusgarria, baina, konpondu ezean goiko bidea hondoratzeko arriskua dago.

LEHENBAILEHEN KONPONTZEKO BEHARRA
Horren ondorioz, oraingo asteko

Gobernu batzordeak erabaki du lehenbailehen konpondu beharra dagoela arazoa; eta hala jakinaraziko dio lanok egin behar dituen Deza 90, SA izeneko enpresari.

Kontua da orain dela sei bat urte enpresa horrek egin zituela A-20 guneko harri-lubetako lanak. Eta Arrasateko Udalak erabaki du hari dagokiola harri-lubeta konpontzea. Izan ere, luizia ez da gertatu errepidea erabiltzearen ondorioz, baizik eta harri-lubeta egin zutenean zerbait dagokion moduan egin ez zutelako.

Salaketa gehiago aurkeztu dituzte GI-2620 errepidearen egoerarengatik

U.M.

Errepideen egoera eskasa berbagai izan du, berriro ere, Gobernu batzordeak. Izan ere, oraingo astean jakinarazi dute Arrasaten 17 lagunek aurkeztu dituztela salaketak. GI-2620 errepideari dagozkio salaketak.

Errepide horretan, Garagartzara doan errepidean, alegia, bidezuloak zeuden, eta Arrasateko Udalean jasotako salaketen arabera, 17 lagunek istripua izan dute. Ondorioz, kalteak izan dituzte ibilgailuetan, eta kalte ordainak eskatu dizkiote Udalari.

Horrela bada, oraingo asteko Gobernu batzordeak gaia landu du eta erabaki du ez onartzea aurkeztutako salaketak horiek. Izan ere, errepidea Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapean egoteaz gain, "ez dago egiaztatuta ibilgailuek izandako kalteen eta Arrasateko Udalaren jardueraren artean dagoen lotura".

Hori bai, horrekin batera erabaki dute jasotako salaketak Udalak kontratatuta duen aseguru etxeare ere bidaliko dizkiotela. Besterik ez bada, aseguru etxearen argibideak eta informazioa jasotzeko.

Era berean, jasotako salake-

ta guztiak Foru Aldundiari ere bidaliko dizkiote, hari dagokio eta salatzaileei erantzuna ematea. Eta, bien bitartean, zeuden zuloak ere konpondu ditu Udalak, Urizarri etorbidean, Alfonso VIII. kalean eta Gautxori baserriaren parean, esate baterako.

SALAKETA GEHIAGO

Kontuak kontu, oraindik ere salaketak jasotzen dabilta Udalean. Esan digutenez, oraingo astean, beste dozena bat salaketa inguru jaso dituzte. Hain zuzen ere, bidea konpondu baino lehenago gertatutako istripuen salaketak dira, otsailaren hasierakoak.

LABUR

Ibai-arte kide diren merkatariei formazioa emateko ikastaroak antolatu dituzte

Merkatarien profesionalizazio handiagoa lortzeko asmoz, merkatarientzako ikastaroak antolatu ditu Ibai-arteak. Astelehenean, hilabete 17, hasi zuten lehenengoa (zerga-ordaintzea eta kontabilitatea), baina gehiago ere izango dira. Adibidez, martxoaren 3tik 7ra, jakintza manipulatzeko baimena lortzeko ikastaroa izango da. Parte hartu gura duenak 943 79 34 37/943 79 30 90 telefonotara deitu behar du.

Espainiako Enplegu Institutuak hogeitatu ikastaro antolatu ditu

INEMek askotariko ikastaroak antolatu ditu. Batzuk 18 urtetik gorako ikastaroak izango dira, baina badaude adinez nagusi ez diren ikastaroak ere. Adibidez, web orriak egiteko ikastaroa eskaintzen dute, Ofimatika ikasteko, administratibo izateko, hizkuntzak ikasteko... 20 ikastaro, guztira. Interesa duenak INEMera jo behar du.

Kobate eta Kanpanzar harrobien zaintzako emaitzak

Kobate eta Kanpanzar harrobiek ingurumenari kalterik egiten ez diotela zaintzeko kontrolak egiten dituzte aldi berean. Emaitzen arabera, Kanpanzarren egoera ona da, baina uren eta atmosferaren kalitatea hobetzeko neurriak hartzen dabilta. Kobate harrobien, berriz, atmosferaren kalitatea zaindu beharra dute.



Berriro ere abian dira kultura etxe berria egiteko lanak

U.M.

Abian dira kultura etxe berria egiteko lanak, denboraldi batez gelditu egon ostean. Gogora dezagun eraikin zaharreko hormak ez zeudela hasieran uste bezain ondo, eta horregatik gelditu zituzten lanak.

Lanen geldidunak iraun duen bitartean, Arrasateko Udaleko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta kultura etxea eraikitzen dabilen enpresako teknikariak han izan dira, egoera aztertzen. Hala, dagoeneko arriskurik ez dagoela ikusita, lanean jarrai dezaketela erabaki dute.

Bestalde, egondako geldidunaren ondorioz obrak atzeratu egin dira. Baina, hala eta guztiz ere, Udaleko Hirigintzako teknikari Juan Antonio Urdangarinek Arrasate Irratiari adierazi zionez, kultura etxea egiteko lan guztiak aurrez zehaztutako epeetan bukatuko dituzte.

AURTEN ERE DIRU PARTIDAK

Horren harira, aurtengo aurrekontuan ere gorde dituzte kultura etxea egiteko diru kopuruak. Esate baterako, kultura etxearen egongo den liburutegi berria egiteko 1.600.000 euroko inbertsioa egiteko asmoa du Arrasateko Udalak.



REALA ANIMATZERA VALLADOLIDERA!

Arrasate Txuriurdin taldekoak Valladolidera joango dira martxoaren 2an. Kirol orrialde-
etan irteera jorren gaineko informazioa topatuko duzue, baina ez dugu jarri domeka horretan zer jango duten. Bazkaria Las Encinas jatetxean izango da: pate, urdaiazpikoa, bildotsa eta entsalada. Futbol arratsalde bati aurre egiteko ganorazko bazkaria. Taldea animatzeko indarrak behar dira-eta.



ARRASKAK ANTOLATUTA, 'SKATE' JAI ARRAKASTATSUA

Joan den domekan, Arraska skate taldeak antolatuta *Skate Jaia* egin zuten Musakolako kiroldegiko pilotalekuan. Jai arrakastatsua izan zen, jende asko egoteaz gain, herrian maila handia dagoela argi geratu zen-eta. Hasiera baten, goizean bakarrik egin behar zuten jai, baina azkenean, egun osoan ibili ziren skate-aren gainean.

ZORIONAK, ISIDRO!

Astlehenean, Isidro González Pérezek 89 urte egin zituen. Urtero moduan, familiakoak eta lagunak Monte tabernan elkartu ziren Isidro zoriontzeko asmoz. Jesus Moreno mondragoetarrak urtero pastel eder bat opari egiten dio. Horrelako pastel batekin, orain dela urte batzuk, Jesus Morenok Donostiako Elkarte ezagun baten lehenengo saria eskuratu zuen. Horretarako, baina, lehenago Bergaran egin zuten lehiaketa irabazi zuen. Pastelaz gainera, beste opari batzuk ere jaso zituen Isidrok, txapela elegante bat, adibidez. Horrela egin daitezke urteak!



Zumaian 2-0 galdu zuen Mondrak. Bihar beste kontu bat izango da.

FUTBOLA

Mondra lidertzaren bila zelairatuko da bihar Zumaiakoren kontra

Josu Zubiaren mutilek urre balioa duten hiru puntu ekarri zituzten Zumarragatik

XABIER URZELAI

Bi puntura dagoen Zumaiako izango da bihar Atxabalpen. Lehena eta bigarrena aurrez aurre. Aspaldian ez du Mondrak lidertza eskuratzeko aukerarik izan; hala, bihar, hiru puntu baino gehiago izango dira jokoan. Arrasateko taldea gauza da Zumaiakori irabazteko.

Aspalditik dago Arrasateko taldea horrelako aukera baten zain. Zumaiako zortzi puntura zegoen orain dela hilabete batzuk, baina liderrak azkenaldian behera egin du eta Mondrak orain pare-parean du Zumaiako, bi puntura. Zumaian Josu Zubiaren mutilek 2-0 galdu zuten, eta min eman zuen partidua horrela galtzeak, Mon-


dra izan zen-eta partiduan nagusi. Bihar, Zumaian egindako okerra zuzentzeko aukera paregabea izango du Arrasateko taldeak. Mondra gauza da Zumaiakori irabazteko, eta jokalariek dira hori argien daukatenak. Horrelako aukerak ezin dira bidean utzi, are gutxiago joan den astean Zumarragan 0-1 irabazi eta gero.

UROLA ATZEAN GERATU DA

Joan den astean, urre balioa duten hiru puntu ekarri zituzten mondragoetarrek Zumarragatik. Illart Etxebarriak egin zuen partiduko gol bakarra, hamargarren minutuan. Ez zen partidu ikusgarria izan, baina bai emozio handikoa. Argixao futbol zelaitik hiru punturekin etortzea opari handia

zen, Urola kontrario gogorra zen-eta. Lehenengo zatian ondo ibili zen Mondra, ederto kokatuta eta serio lanean. Huts eta batekoarekin, baina, argi zegoen Urolak gora egingo zuela, eta Mondrak erraztasunak eman zizkion horretarako. Bigarren zatian sufritzea tokatu zen. Mondrak defentsa lana baino ez zuen egin, baina garrantzitsuena ez zen zelan irabazi, irabaztea zen kontua. Urolak gola egiteko aukeraren bat edo beste izan zuen, baina ez zuen asmatu, eta kontraerasoan huts eta bikoa egiteko aukera ere izan zuen Jokin Pavok. Mondrak ez zuen ondo jokatu, baina arrasatearrek zeukaten guztia eman zuten. Ondo edo gaizki jokatu, Mondrak daukana ematen duenean ez du kontrariorik.

FOTOKIROLA



Arrasateko gimnastak, ondo Bergaran

Joan den astean, Eskola Arteko Txapelketarako sailkatzeko lehenengo fasea jokatu zen Bergaran, eta Arrasateko gimnastak lan polita egin zuten. Arrasateko hamabost gimnasta izan ziren hainbat maila eta modalitatetan. Arrasateko gimnastak Benjamin mailan, alebin mailan, infantil mailan eta kadete mailan ibili ziren. Benjamin mailakoek ez dute puntuatzen, baina gainerako gimnasten lana puntuatu egiten da. Hamabost arrasatearrek puntuazio polita lortu zuten.

TXURIURDIN

Arrasate Txuriurdin taldea Valladolidera joango da Reala animatzera

Martxoaren 2an, Arrasate Txuriurdin Realeko jarraitzaile taldea Valladoliden izango da taldea animatzen. Arrasateko jarraitzaile taldearen lehenengo irteera izango da, eta Reala animatzeaz gain, Frutos Villar upelategietara bisitaldia eta Las Encinas jatetxean bazkari ederra egingo dute.

Valladolidera joan gura duenak Monte tabernan eman behar du izena. Edozein Realzalek eman dezake izena, baina Arrasate Txuriurdineko kideek gutxiago ordainduko dute.

ATLETISMOA

San Viator Ikastetxeko ikasleak sailkatuta daude Eskola Arteko Txapelketako finalerako

Joan den asteburuan, Eskola Arteko Txapelketako bigarren fasea jokatu zen Anoetan, eta lehenengo fasean gertatu bezala, bigarren fasean ere Arrasateko San Viator Ikastetxea nagusitu zen. Arrasateko atletak hainbat modalitatetan ibili ziren: 60 metroetako lasterketa, 500 metroetako lasterketa, 1.000 metroetako lasterketa, pisu-jaurtiketa, altuera-jauzia, errelebuak... Mondrangoetarrek finalerako sailkatuta daude. Joan den urtean bigarren izan ziren Gipuzkoako Txapelketan eta laugarren Euskadiko Txapelketan.

ZIKLOTURISMOA

Datorren asteburuan, Euskal Herriko zikloturisten topaketa egingo dute Dorletan

23 urte azpiko eta elite mailako lasterketek 25 urte beteko dituzte aurten. Hori dela eta, Dorletako Txirriindulari batzordeak hainbat ekintza antolatuko ditu aurtengo denboraldirako.

Horien artean, mendiko bizikleta proba, 23 urte azpiko lasterketa eta elite mailako lasterketa izango dira. Ekitaldi berezi horien artean ere, datorren asteburuan, martxoaren 2an, Euskal Herriko zikloturisten topaketa izango da.

Domekan, ibarreko ehun xakelari gazte elkartu ziren Musakolan

Joan den domekan, Debagoieneko Eskola Arteko Txapelketa jokatu zen Musakolako kiroldegian. Ibarreko ikastetxeetako ehun xakelari inguru ibili ziren taula gainean daukaten abilezia erakusten. Infantil mailan, Arrasateko Mesedeetako Amako ikasle Asier Fernández izan zen onena. Taldeka, berriz, Arizmendiko San Viator guneko ikasleak nagusitu ziren. Alebinetan, Bergarako

Aranzadi Ikastetxeko Kevin Konde izan zen onena. Taldeka, Oñatiko Santa Eskolastikako ikasleak nagusitu ziren. Azkenik, Benjamin mailan, Oñatiko Santa Eskolastikako ikasle Asier Goitia izan zen abilena, eta taldeka ere Oñatiko ikastetxe hori nagusitu zen.

Ibarreko xakelariok maila polita erakutsi zuten. Lehenengo postuak eskuratu zituztenek

Gipuzkoako Eskola Arteko Xake Txapelketarako sailkatu dira.

AZKEN JARDUNALDIA JOKOAN

Arrasate San Andres Xake Taldeak azken jardunaldia jokatu du oraingo asteburuan. Arrasatearren helburua mailari eustea da, baina oraindik ere badute mailaz igotzeko aukeraren bat edo beste. Ruta de Europa taldea izango da kontrarioa.

Kenci Arrasatek igoera faserako sailkatzeko lehia jarraituko du

XABIER URZELAI

Arrasateko taldeak aukera gutxi ditu igoera faserako sailkatzeko, baina oraindik ez dago guztia erabakita. Kenci Arrasate zazpigarrena da, eta seigarrena da igoera faserako sailkatzen den azken taldea. Calasancio taldea da seigarrena, eta Kencik baino partidu bi gehiago irabazi ditu.

Calasancio partidu biko alde du; hortaz, Kenci Arrasatek, gertzen zaizkion lau partiduak irabazteaz gain, Calasancio zer egiten duen ere kontuan izan behar du. Argi dago igoera faserako sailkatzea ez dela erraza izango. Kenci Arrasatek ez du zortea aldeko, eta igoera faserako sailkatzeko guztia beharko du Mondragoeko taldeak.

Joan den asteburuan, Arrasate jokalariek askoren faltan joan zen Kalagorrira. Zazpi jokalariek baino ez zituen izan eskura Iker Zubiriak, lau jokalariek min hartuta zeuden-eta. Kalagorrik 71-67 irabazi zion Kenci Arrasateri. Partidu osoan errioxarrak izan ziren aurretik markagailuan. Hala ere, azken laurdenean, partidu amaitzeko minutu gutxi geratzen zirenean, Arrasateko taldeak gora



Martxoan Calasancioren kontrako partidua erabakigarria izan daiteke.

egin eta markagailuan aurre hartzea lortu zuen. Iker Zubiriaren mutilek lau puntuko alde eskuratu zuten, baina minutu gutxi-ko kontua izan zen, errioxarrek berriro hartu zuten-eta aurré. Lau puntuko aldeagatik galdu zuen Arrasateko taldeak. Oraingo asteburuan, Kenci Arrasatek Iturripen jokatu du Padura taldearen kontra. Etxekoek gogotik egin beharko dute lan, baina norgehiagoka hauek azken aukerak

direla jakiteak on egin diezaioko Mondragoeko taldeari.

HARROBIA BULTZATZEN

Domeketan, goizeko hamar eta erdietan, Arrasateko neska-mutikoek saskibaloian egiteko aukera paregabea dute Musakolako kiroldegian. Kenci Arrasateko jokalariek egiten dituzte monitore lanak, eta gaztetxoek saskibaloian jokatzeko ikastea da helburua. Animatu!

FOTOKIROLA



Senior mailako talde biek irabazi egin zuten asteburuan

Arrasateko eskubaloitako taldeendako asteburu goxoa izan zen aurrekoa. AGR Arrasatek 29-37 irabazi zuen Bidasoa taldearen kantuan. Norgehiagoka lasaia izan zen. Arrasatearrak hasieratik aurreratu ziren markagailuan. Deskantsura bost goleko aldearekin iritsi ziren (13-18), eta bigarren zatian ere gauzak ez ziren askorik aldatu. Senior mailako bigarren taldeak, berriz, Loiolaren kontra jokatu zuen, eta Pitxi Herreroren mutilak 28-27 nagusitu ziren. Emaizta ona den arren, entrenatzailearen esanetan denboraldiko partidu kaskarrena jokatu zuen Mondragoeko taldeak. Askotan ondo jokatu galtzen da; hortaz, garaipen horrek berdinduta balio du.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

| | |
|------------------------------|-------|
| Saukelu Scream - NS/NC | 6-2 |
| You Know! - Iriztu Taberna | 5-5 |
| Etxerat - Lasagabaster | 8-3 |
| Komando Alpagat - Abocajarro | 6-5 |
| Al Kaeda - Rayo Aldeano | ----- |
| Makanaki - Goma-2 | 5-3 |
| Betrayer - Maldifa's | 1-0 |

B MULTZOA

| | |
|------------------------------------|-----|
| El Ekipo A - Fuxxion | 6-2 |
| Aurrera Bolie - Whiskeria | 6-4 |
| AT Celaya - Estu Ta Larri | 6-8 |
| Etxinai! - Fragel Gol | 6-4 |
| AC Surcos - Dribling.es.vg | 3-5 |
| Bikain Akademia - Saloga | 1-0 |
| Koka Juniors - Billy & The Cowboys | 6-2 |

PARTIDUAK

OTSAILAK 22, ZAPATUA. EPAILEAK

| |
|--|
| 09:50: Saukelu Scr - Iriztu Tab. Makanaki |
| 11:00: Makanaki - Betrayer. Iriztu Taberna |
| 12:00: Bikain Akad - Koka Juniors. Betrayer |
| 13:00: Fuxxion - Estu Ta Larri. Koka Juniors |
| 14:00: AC Surcos - Billy & The... Fuxxion |
| 15:00: You Know - Abocajarro. AC Surcos |
| 16:00: Aurrera Bol - Frgauel Gol. You Know |
| 17:00: El Ekipo A - Whiskeria. Aurrera Bol |
| 18:00: K. Alpagat - Goma-2. El Ekipo A |

OTSAILAK 23, DOMEKA

| |
|--|
| 11:50: NS/NC - Lasagabaster. AT Celaya |
| 13:00: AT Celaya - Dribling.es.vg. NS/NC |

Deskantsua: Etxerat, Etxinai!

SAILKAPENA

A MULTZOA

| | P | J |
|--------------------|----|----|
| 1. Saukelu Scream | 18 | 12 |
| 2. Iriztu Taberna | 18 | 12 |
| 3. You Know! | 17 | 12 |
| 4. Etxerat | 16 | 12 |
| 5. Makanaki | 16 | 12 |
| 6. Betrayer | 15 | 12 |
| 7. Lasagabaster | 13 | 12 |
| 8. Goma-2 | 13 | 12 |
| 9. Komando Alpagat | 12 | 12 |
| 10. NS/NC | 9 | 12 |
| 11. Abocajarro | 8 | 12 |
| 12. Al Kaeda | 5 | 12 |
| 13. Maldifa's | 3 | 12 |
| 14. Rayo Aldeano | 3 | 12 |

B MULTZOA

| | P | J |
|-------------------------|----|----|
| 1. AC Surcos | 21 | 12 |
| 2. Dribling.es.vg | 18 | 12 |
| 3. Aurrera Bolie | 16 | 12 |
| 4. Koka Juniors | 16 | 12 |
| 5. Bikain Akademia | 16 | 12 |
| 6. AT Celaya | 15 | 12 |
| 7. Etxinai! | 13 | 12 |
| 8. Fragel Gol | 12 | 12 |
| 9. Fuxxion | 12 | 12 |
| 10. El Ekipo A | 9 | 12 |
| 11. Estu Ta Larri | 8 | 12 |
| 12. Billy & The Cowboys | 8 | 12 |
| 13. Saloga | 2 | 12 |
| 14. Whiskeria | 2 | 12 |

LEHENENGO FASEKO AZKEN JARDUNALDIA

PARTIDU ERABAKIGARRIAK, ZEIN TALDE SAILKATUKO DIREN ERABAKITZEKO

Oraingo asteburuan, lehenengo faseko azken jardunaldia jokatu da, eta talde batzuk sailkatuta dauden arren, oraindik ez dago guztia erabakita. Zapatu arratsaldean, Fuxxion eta Estu Ta Larri taldeek neurtuko dituzte indarrak. Norgehiagoka irabazten duena B multzoko lehenengo zortzi taldeen artean sailkatuko da. Etxinai! taldeak Salogaren kontra jokatu beharko luke, baina Saloga kaleratuta dago; hortaz, Etxinai! taldeak bi puntu gehiago ditu. Bestalde, Komando Alpagat eta Gom-2 taldeen arteko derbia ere jokatu da. Goma-2 taldea puntu bat lortuta sailkatuta dago. Komando Alpagatek, berriz, irabazi egin behar du. Bi talde horiek berdinduz gero, domekan Lasagabaster taldearen emaitzaren zain egon beharko dute. Azken horiek puntu batekin nahiko izango dute. Emozioz betetako jardunaldia izango da, hortaz.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Zumaiako FT
Erregionala. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
Mondra - Aretxabaleta KE
Ohor gazteak. Domekan. 12:15. Atxabalpen.
Anaitasuna - Arrasate
Kadeteak. Domekan. 11:00. Azkoitian.
Urki C.D. - Arrasate B
Big. mail. kad. Kopa. Domekan. 15:30. Eibarren.
Mundarro K.E. - Arrasate
Infantiletako lehenengo maila. Igoera fasea. Zapatuan. 12:00. Donostian.
Mondra - Bergara K.E.
Neskek. Zapatuan. 10:00. Atxabalpen.

SASKIBALDIA

Kenci Arrasate - Padura
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Arrasaten.
Kenci Arrasate - La Salle
Gazteak. Zapatuan. 16:00. Musakolan.
Kenci Arrasate - BKL
Gazteak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

ERRUGBIA

Arrasate - Getxo
Zapatuan. 16.00etan. Garagartzan.

ESKUBALDIA

Arrasate - Urola
Seniorrak. Zapatuan. 16:30. Musakolan.
BKL/CAF - Arrasate
Seniorrak. Zapatuan. 18:30. Antzizarren.
Tolosa Eskolapioak - Arrasate
Gazteak. Zapatuan. 16:30. Tolosan.

EMAITZAK

ESKUBALDIA

Seniorrak: Arrasate - Loiola 28-27
Gazte maila: Arrasate - Leizaran 27-12

ERRUGBIA

Seniorrak: Juventud - Arrasate 5-27
Kadeteak: Atco. Bera Bera - Arrasate 50-19

FUTBOLA

Infantilak: Arrasate - Urnieta 8-0

ERRUGBIA

Arrasatekoek bide onetik jarraitzen dute Santanderren irabazi ostean

Emaitzek laguntzen duten arren, taldea haserre dago Garagartzako zelaiairen egoeragatik

XABIER URZELAI

Joan den astean, Atxabalpeko zelaiairen egoera kaskarra kritikatu genuen. Arrasateko Errugbi Taldeak ere gai horren inguruan badauka zer esan, Garagartzako zelaia lotsagarri dagoelako, eta ez da gaur goizeko kontua. Emaitzei dagokienez, berriz, errugbi taldea ondo dabil.

Joan den astean igoera faseko laugarren jardunaldia jokatu bazen ere, arrasatearrek bi partidu baino ez dituzte jokatu, Kaka-raldoren kontra lehenago irabazi zutelako eta Eibarren kontrako partidua elurra zela-eta atzeratu egin zelako. Jokaturako bi partiduetan denetik izan da: Elorrioren kontra maila kaskarra erakutsi zuen Arrasateko taldeak, baina joan den asteburuan, mondra-goetarrak 5-27 nagusitu ziren Santanderko Juventud taldearen kontra.

Juventud talde ezezaguna zen, eta arrasatearrek ez zekiten zer aurkituko zuten Santanderren. Mondra-goetarrak erraz nagusitu ziren, baina ez zen partidu erra-



ARRASATE PRESS

Garagartzako zelaian jokatzeko garrantzitsua da orkatilak ondo berotzea.

za izan, ederto borrokatu behar izan zuten-eta Patxi Gorosabalen mutilek.

TALDEA, HASERRE

Arrasateko Errugbi Taldea haserre dago, baina ez da gaurko kontua. Garagartzako zelaia egin zene-tik urte askotxo pasatu dira, eta zelai hori gutxitan egon da errug-


bian ondo jokatzeko moduan. Zelaian animaliak egoten dira, eta jokalariek behi kakak zapal-tzen dituzte. Zulo galantak daude, eta ondoko mendiko urak errug-biko zelaira jausten dira. Horrez gain, erreka ondoan dagoenez, zelaia kutsatuta dago. Bagenekien errugbia kirol gogorra dela, batez ere, Arrasaten jokatzeko bada.

HITZALDIA

Luis Mari Zulaikak hitzaldia egingo du Monterronen datorren egunean

Arrasate Kirol Proiektuak antolatuta, Luis Mari Zulaika heziketa fisikoko irakasleak hitzaldia egingo du Monterronen datorren egunean. Luis Mari *Kirola egiteko 30 arrazo*i liburua ere egilea da eta hitzaldian ere kirola egitearen onuren gainean egingo du hitzaldia. Gai horren barruan, baina, *Eskola kirola baliabide heziketa* gisa gaia landuko du. Hitzaldia arratsaldeko zazpitan izango da.

FOTOKIROLA



Jonathan Pérezek, ezin marka hobetu

Jonathan Pérezek ezin izan zuen bost metroko jauzia egin Sevillan jokatu zen Espainiako Promesen Txapelketan. Hala ere, mondra-goetarrak oraindik baditu aukerak Valentzian jokatu den Espainiako Txapelketan parte hartzeko. /X.U.

2003-2004



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

943 79 27 73



Haur Hezkuntza

0-2 urte

67€ hilean



Lehen Hezkuntza

Haur Hezkuntza

2-6 urte



DBH

eredua **D**



ARRASATEARROI

Gure herriak, historiaren hari finean, aurrera egiten ikasi du. Historia horren lekuko berezia izan den herriko plaza honetan gaude.

Une latzak, batzuk:

Ertaroko erreketak, gerra garaiko bonbardaketa ahaleginak, presoak giza eskutu bezala erabiliak, Txominen heriotza...

Une gozo eta gogoangarriak ere:

Herriko jaiak, ikurrina lehen aldiz udaletxera jaso, elkartasun ekitaldiak...

Azken 25 urteotan, ordea, gauden lekutik hurbil igaro dira ispiritu zenbait ere:

"Espainian eroso sentitu" beharra saldu nahi zigun Arriagako espiritua, Ermuako ispiritua. Baina, eraso guzti horiei aurre egiten ere jakin dugu eta inizatiba politikoa eskuratzea lortu dugu, urte luzetan zehar.

Gaurregun, egoera konplikatu baten aurrean aurkitzen gara. Nazioartetik hasita eta gure herriko egoeraraino iritsiz.

Gure gainean ditugun Estatu bi, errejimen eskubitarrez zuzenduak, errepresio etengabea ari dira garatzen. Mila bider esandako gezurrak, egia bihurtzen dituzte, gure aurka. Pentsamendu bakarra nahi dute inposatu.

Aniztasuna nahi digute ezabatu.

Honek, berriz ere, erantzun beharra sortzen digu. Ideia berriak asmatu beharra daukagu. Iniziatiba berriak garatu behar ditugu. Eta bereziki, antolamendu maila izugarri zehatza eta findua lortu behar dugu, belaunaldi arteko elkarlanean.

Historia, diote, ez dela alferrik igarotzen; ez gaitezen geu ere alferrik igaro istorian. Eragin dezagun beragan! Libre behar dugu egia; adierazi, elkartu, eraiki, erabaki... Zor zaigu eskubide hori.

Arrasate, herri erreferentzial bat bihurtu behar dugu, oraindik areago.

Herri abertzale, herri aurrerazale.

Gure Autonomia kalea gaintitu beharra daukagu, Askatasunaren plazara iristeko.

Une honetan, burua altxatzea dagokigu; harrokeria barik baina harrotasunez.

Gora Euskal Herria!! esatea dagokigu.

Eta hori, Arrasaten, gehiengo sozial, politiko eta elektoral lortzetik igarotzen da.

Iraganari zor dioguna, geroari eskeini behar diogu. Etorkizunari lotuta behar dugu, lotura bako etorkizuna eskura dezagun.

Arrasaten, 2003ko otsailean

ELKARRIZKETA

GORKA ZUBIZARRETA/DISEINATZAILE GRAFIKOA

“Eskolako koaderno guztiak marrazkiz betetzen nituen”

IKER BARANDIARAN

Gorka Zubizarretak Arrasateko Gazte Kontseiluko Logotipo Lehiaketa irabazi berri du. Horrez gainera, herriko zenbait elkar-terren logotipoak ere egin ditu, eta buru-belarri dabil diseinatzen.

Txikitan, marraztea gustuko zenuen? Harreman zuzena dute marrazteak eta diseinu grafikoak?

Betidanik izan dut gustuko marraztea. Oso gaztetxotan oliok margotzen hasi nintzen, eta lehenagotik eskolako koadernoak marrazkiz betetzen nituen. Monterrongo ikastaroetan ere ibilia naiz, eta 13 urterekin aire zabaleko lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen. Nire iritziz, diseinatzaile grafiko izateko oso garrantzitsua da marrazten jakitea. Diseinua sormena da, eta, horrez gainera, sortu duzuna egiteko trebetasuna ere behar da.

Noiz erabaki zenuen diseinu grafikoan hasia?

17 urterekin-edo, zer ikasi pentsatzen hasi nintzen. Arte Eder-erak ikasteak erakartzen ninduen, baina geroago Diseinu Grafikoa ikastea erabaki nuen. Diseinu Grafikoan marrazketa eta ordenagailua uztartzen dira. Artea da eta, era berean, lan esparruari begira etorkizun handiagoa du.

Zein ikasketa egin dituzu? Gustura gelditu zara ikasitakoarekin?

Diseinu Grafikoa ikasi dut, Publizitateko espezialitatea, hain zuzen ere. Donostian hasi nintzen, baina eskola itxi egin zuten eta Bilbon bukatu behar izan nituen ikasketak. Ez nintzen gustura gelditu. Euskal Herrian Diseinu Grafikoa ikasteko oso aukera gutxi daude eta dauden eskolak pribatuak eta garestiak dira. Diseinatzen baino gehiago, marrazten erakutsi didate. Beste guztiak eskolatik kanpo ikasi behar izan dut.

Aspalditik zabilta elkar-teetarako eta lantxoak egiten...

Bai, dagoeneko egin ditut lantxo batzuk: Arrasateko gaztetxearen logotipoa, Zaldibarko Txapelketarena, Arrostitz dantza taldearena, Txalaparta taldearena, Aramaioko abeletxe batena, Gazte Ekimenarena, eta Anger eta Numen musika taldeenak, besteak beste. Hainbat lehiaketatan ere hartu izan dut parte, eta sari gutxi batzuk eskuratu ditut: Zarauzko Udaleko Gabonetako Postal onena, Gazte Kontseiluko Logotipoa...

Zertan inspiratzen zara diseinuak egiteko?

Egungo diseinu gehienak



XABIER URZELAI

“Diseinua sormena da, eta, horrez gain, sortu duzuna egiteko trebetasuna ere behar da”

diseinu zaharragoetan oinarrituta daude. Gauza ahalik eta berrienak egiten ahalegintzen naiz; kolore, konposizio eta tipografiarekin jokatzeko dut, baina joerak egungo diseinuetara eramaten nau. Egungo diseinu minimalistak daude modan: sinpleak, oinarriko koloreak dituztenak eta muntaia txikikoak.

Lan esperientzia handia daukazu?

Etxean ordenagailuarekin lan handia egin dut, eta egiten dut. Horrez gainera, Aretxabaletako AZK enpresan eta Arrasateko JJK publizitatea enpresan ere ibili naiz. Horrez gainera, aurten bigarren denboraldia da Fagor Industrialen katalogoak diseinatzen nabilela.


“Italian irudiak eta diseinuak oso garrantzi handia dute, eta asko ikasi nuen han”

Diseinu praktikak egitera Italiara jo zenuen. Zelakoa izan zen esperientzia hura?

Ikasketak bukatzean, beka bat eman zidaten, eta Vicenzako (Italia) diseinu grafikoko enpresa baten hiru hilabete egin nituen. Asko ikasi nuen han, eta tratua oso ona izan zen. Italian diseinuak oso garrantzi handia du; izan ere, arlo guztietan irudia asko zaintzen dute, eta hori nabaritu egiten da. Italiako diseinua oso abangoardista da.

Eta zein asmo duzu orain?

Bada, lanean jarraitu eta gehiago ikasi. Web orriek ere erakartzen naute, baina hemen ez dago horretan ibiltzeko aukera handirik. Diseinu grafikoan jarraitu gura dut.



AITOR URZELAI

Irudian, 2003ko Aratusteetako kartela.

Amaia Ovejerok egin du 2003ko Aratusteetako kartela

I.B.

Amaia Ovejero gazte arrasatearrak egin du 2003ko Aratusteetako kartela. Guztira, 29 parte-hartzaile izan dira lehiaketa horretan, eta horietatik, 16 lagunek hartu dute parte nagusien lehiaketan.

Dagoeneko badaukagu 2003ko Aratusteetako kartela. Amaia Ovejero gazte arrasatearrak egin du, eskuz, eta 360 euroko saria eman diote. *Parranda* izena du Amaia Ovejeroren lanak, eta dragoia, Portaloia eta txotxongilo bi agertzen dira Arrasateko Aratusteak irudikatuko dituen kartelean.

Aratusteak 2003ko Kartel Lehiaketan 29 parte-hartzaile izan dira: horietatik, 16 lagunek nagusien kategorian hartu dute parte.

AURKEZTUTAKO LANEK, MAILA ALTUA

Lehiaketako epaimahaikak aditerra eman duenez, aurkeztutako lanek maila altua zuten. Nagusiek egindako lanen arteak lau eskuz egin dituzte. Gainerakoak, berriz, ordenagailuz.

Aurten, Arrasateko Udalak umeen kartel politena ere saritu du. Saritutako lanak *Superpaila-zoa* izena du. Patriciak, Anak, Mikelek eta Lierrek egin dute, eta sari gisa marrazteko materiala eman diete, 100 eurotan.

LABUR

Bihar, zapatua, Neguko Olinpiadak egingo dituzte herrian, goizetik iluntzera arte

AEDk eta Topaguneak Neguko Olinpiadak antolatu dituzte bihar, zapatua. Goizetik hasita iluntzera arte, egun pasa ederra egiteko aukera egongo da, betiere, euskal giro jatorrean eta neguko kirol ekintzetan oinarrituta.

10:00etan, parte-hartzaile guztiek bat egingo dute Uarkape pilotalekuan. Handik Herriko Plazara joko dute eta 10:30ean, herri kirolekin hasiko dira. Horretan ibiliko dira bazkalordura arte. Herri bazkariaren ondoren, Uarkapen beste proba batzuk egingo dituzte eta 18:30ean, sari banaketa egingo dute.

AEDk antolatzen dituen Arrasate Lehiaketetan 124 lan aurkeztu dituzte

AEDk aditerra eman duenez, XVI. Arrasate Lehiaketetan 124 lagunek hartu dute parte. Horrenbestez, ia baino 20 lan gutxiago aurkeztu dituzte. Hain zuzen ere, poesia sailean 20 lan aurkeztu dituzte; komiki sailean, 12; eta bertso sailean, 15. Gainerako 77 lanak ipuinak izan dira.

AEDko arduradunek jakinarazi dutenez, parte-hartzaile gehienek ipuina aukeratzeko arrazoia da eskoletan ipuinak lantzen dituztela. Bestalde, AEDko arduradunek adierazi dute 17 urtetik gorako oso parte-hartzaile gutxi egon direla.

Epaimahaikideek hilabete izango dute lanak ikusteko. Apirilaren 10ean emango dituzte aditerra irabazleen izenak.

E, TXO!

LUDOTEKA IBILTARIA

Zapatuan, otsailaren 22an, Ludoteka Ibiltaria egongo da Musakolako Herri Eskolan. 3 eta 12 urte arteko umeak jolastu ahal izango dira Musakolako ludotekan, 11:00etatik 13:30era bitartean. Txatxilipurdiko begiraleek zainduko dituzte umeak.

TXATXILIPURDI, BEGIRALE BILA

Txatxilipurdi elkarteak 2003ko udalekuen prestaketa lanetan hasi da, eta begirale izan gura dutenei dei egin die. Interesatuak curriculum-a, argazki bat, begirale titulua eta Naren kopia aurkeztu beharko dute Txatxilipurdik Pablo Urangan duen egoitzan, apirilaren 16a baino lehenago. Izena emateko bete beharreko baldintzak honako hauek dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragile formazio saioetara joatea. Informazio zabalagoa, 943 77 17 39 telefonoan (Jaione edo Itziar).

MUSEOLOGIAKO IKERKETA BEKAK EMANGO DITUZTE

Arabako Foru Aldundiak emango ditu, eta lizentziaduna izatea beharrezkoa da beka horiek lortzeko. Deialdi horren helburua da Arabako Foru Aldundiaren museoekin lotutako ikerketa-proiektuen bitartez museologiako ikerketa sustatzeko bekak ematea. Banaka edo taldeka eska daitezke beka horiek.

Otsailaren 26ra arte dago eskaerak aurkezteko epea, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean edo Kultura Sailean.

ARTIUM IKERKETA BEKARAKO DEIALDIA

Beka horren helburua da gaur egungo artearen gaineko dokumentu-ondarearen gaineko informazioa ikertu eta batzea. Beka lortzeko beharrezkoa da Arte Ederretako, Artearen Historiako edo Bibliotekonomia eta Dokumentaziozko diplomadun edo lizentziaduna izatea.

Martxoaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira beka lortzeko eskaerak, Artium Museo-ko Liburutegi eta Dokumentazio Sailean, Gasteizko Frantzia kalean, hain zuzen ere.

GUREGAIK/ ARRASATEKO GAZTE KONTSEILUA

Gazteen elkartasuna eta burujabetasuna bultzatzeko ekimena

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Gazte Kontseilua eratu dute. Udaleko Gazte Sailak eta herriko hainbat gazte taldek bultzatutako erakunde autonomo horrek gazteak eurak parte aktiboak izatea du helburu.

Udaleko Gazte Sailak eta herriko hainbat gazte elkarterek gazteen artean eta gazteen eta Udalen arteko harreman eta komunikazio handiagoaren premia ikusi zuten. Era berean, Udalak berak itsu-itsuan gazteendako ekintzak antolatu beharrean, gazteek eurek antolatzea edo gazteek Udalari zer gura duten jakinaraztea onetsi zuen Udalak.

Gazte Sailak eta gaztetxeko batzarrak, AGAKOK, gaztetxe berriaren gainean egindako batzarrak aprobetxatuta, AGAKORI ere Arrasateko Gazte Kontseilua eratzeko batzarretan parte hartzeko gonbita egin zioten.

ORGANO GUTIZ AUTONOMOA

2002ko maiatzaren lehen egun zuten lehenengo batzarra, eta talde hauek hartu zuten parte: Besaide, Txatxilipurdi, AED, Udaleko Gazte Saila, Arraska, Gizaizpi Alai eta AGAKO. Horien artean Udaleko Gazte Saileko ordezkari bat ere badago, baina partaide soila da, eta horrela jarraituko du Arrasateko Gazte Kontseiluak gura duen arte.

Arrasateko Gazte Kontseilua guztiz autonomoa da, eta EAEn eratu den bakarra da

Gazteen arteko lankidetzaren eta komunikazioa lantzea du helburu nagusi

Arrasateko Gazte Kontseilua organo guztiz autonomoa da. Eta Udalak gazteekin lotutako edozein ekimen antolatu gura badu, kontseilu horrekin kontsultatu beharko du.

Iazko maiatzetik gaur egunera arte hileroko edo hilean birritan egin dituzten batzarretan, Gazte Kontseiluari zein forma eman gura dioten eta zein arlotan lan egin behar duten eztabaidatzen ibili dira. Horrekin batera, gazte kontseiluaren estatutuak zehaztu dituzte. Gazte Kontseiluko partaideek jakinarazi digutenez,



Irudian, Arrasateko Gazte Kontseiluko Logotipo Lehiaketako hiru irabazleak.

elkarte bakoitzak bere kasa ekintzak antolatzen jarraituko du, lankidetzan beste ekintza batzuk antolatuko dituzten arren. Batzarrak egiten jarraituko dute, eta beste edozein elkarte eta gizabanako gonbidatu gura dute.

GAZTEEN ETA UMEEN ESPARRUA

Arrasateko Gazte Kontseiluak herriko gazteen lankidetzaren lantzeko duen arren, orain umeak direnak ere kontuan hartu gura ditu. Horretan buru-belarri dabil Txatxilipurdi elkarteak, umeak ere laster gazteak izango direlako. Umeek Udalaren funtziona-

mendua eta beste kontu batzuk ezagutzeko eta eztabaidatzea ere gura dute.

EPE ERTAINERA DITUZTEN EKIMENAK

Bestalde, Arrasateko Gazte Kontseiluak badauka logotipoa dagoeneko. Lehiaketa egin berri dute, eta Gorka Zubizarretaren marrazkia izan da irabazlea. Epe ertainera, Arrasateko Gazte Kontseiluak gaztetxe berriari laguntza eta babesa eskaini gura dio. Horrez gain, ikasturte bukaerarako, herriko gazte elkarte gehienak inplikatu diren jaialdi bat antolatu gura dute.

LOTSABARIK/ Mikel Arregi

“Realak 3-0 galtzeak lotsatu ninduen”

IKER BARANDIARAN

Mikel oso Realzalea da eta jota topatu genuen Realaren eta Athleticen arteko partiduen ondoren elkarriketa egin genionean. Umorea berreskuratu eta lotsa barik erantzun zion gure galdetegi zorrotzari.

• Txikitán, zer izan gura zenuen?

Suhiltzaile izan gura nuen. Suhiltzaileekin lotutako hainbat jostailu nituen eta jostailu horiekin suak itzaltzen ibiltzen nintzen. Dagoeneko iritzia aldatu dut, suhiltzaile izateko oso sasoi onean egon beharra dagoelako.

• Zelan ikusten duzu zeure

burua hemendik 20 urtera?

Arrasaten edo, asko jota, Donostian. Bikotekidearekin egotea espero dut eta, gehienez, ume bat edukiko nuke. Oraindik ez dut neure burua lanean ikusten, baina Kazetaritza ikasteko asmoa daukat.

• Zein da, zeure iritziz, adin ideala?

Orain daukadana, 17 urte. Adin honekin gura duguna egiten dugu: etxean jan, lo, gura dugunean irten...

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Kalean ibiltzeari eta ondo pasatzeari; bizi izateari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Gure amak errieta askorik ez egiteak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Realak Athleticen aurka 3-0 galtzeak.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Lagunak erraz egiten ditut, baina oso presatsua naiz.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?


Belarriak. Ez dira ez handiak ezta txikiak ere, eta gustuko ditut.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Begiei eta begiradari.

• Arrasaten ligatzen da?

Ez. Ez dakit mutilengatik edo neskegatik den, baina Arrasaten ez da ligatzen.



BEHEKODENDATIK

Maite Osa

VIVEROS BASUSTA POSTUKUE

XABIER URZELAI

Maite zumaixarra da, eta hamar urte daroie lorakin lanien. Zumaixen loradendie daukie, eta Mondraguen beste loradenda bat zabalketako asmue daukie. Bittartien plazan topauko dozue, astelehenetik zapatura, goix eta arratsalde. Lan haundixe da, baiñe norberandako lan egitten danien, gustorago egitten da.

Amets bat?

Mondraguen loradendie zabal-ketie.

Eta amets txar bat?

Ez dauket amets txarrendako denporarik.

Egin dozun azken biajie?

Holandara, oporretan eta pro-beedoriekin tratuen egittera.

Txartel horixe, zeñei?

Itsasue zikinddu dauenei.

Eta gorrixer?

Garbiketako ezer egitten ez dauenei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Siete días y siete noches / Ez dot askorik irakurten / Amaral.

Drogak legalizauko zittukie?

Danak ez. Marihuanie, adibidez, bai.

Eta prostituziñue?

Ez.

Iñoix ikusiko dogu marihuanie Mondragueko loradendetan?

Ondiokan...

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.

Etxeko zapatillak ala zapa-tak?

Zapatillak.

Ze dauketzu sobran?

Umore ona.

Eta faltan?

Gauzak egitteko denporie; hori falta jat.

Ze gustetan jatzu Mondra-guetik?

Herrixen dauen giro jatorra.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Komertziuei gehixago lagun-duko neuskie.



X.U.

“Oin ez da lorak saltzeko sasoirik onena, baiñe hasi gare udaberrirako preparentan”

Eta lehendakari izengo bazi-tze?

Euskal Herriko pakian alde lan egingo neuke.

Bizio bat?

Erretie.

Ezagutu dozun pertsona intersante bat?

Mondraguen jente interesante asko nabil ezaguketan.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Boris Izagirre.

Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñekin?

Brad Pittekin.

Dirue euki ezkerro, zertan gastauko zeuke?

Etxie ondo jarten.

“Astelehenetik zapatura gauz plazan, baiñe geure asmue da herrixen dendie zabalketie”

Egunero zauze plazan... Lora asko salduko dittuzue.

Oin ez da sasoi ona, baiñe udaberrirako gabitz preparentan.

Plazan ala denda baten hobeto?

Diferentiek die. Plazan giro hobie dau, baiñe norberan dendan hobeto egoten dala esango neuke.

Honeik hotzok lorandako onak ala txarrak die?

Kanpoko lorandako ona, baiñe barruko lorakin kontuz ibilli biher da.

Eta lorak saltzen dittuenen-dako?

Hori be aguantau egin biher! Hala eta be, norberandako lan egitten danien be gustorago egitten da.

NIREBIDAIAHURA/ Joxan García Zapiain

Afrikara / 2002ko martxotik irailera arte

Bidaia guztiek dute zera berezi bat, baina Joxanen bidaia apartekoa da, orduak eta orduak egon zaitzke bidaian bizi izan zituenak entzuten. Bidaia hura ez dugu kapitulu bakarrean kontatuko, hori baino tarte askoz ere handiagoa merezi du-eta. Sei hilabete egin zituen Gesalibarren bizi den Joxanek Afrikan, eta lurralde hauek bisitatu zituen: Hego Afrika, Namibia, Lesotho, Zimbabwe, Zambia, Malawi, Tanzania eta Kenya. Argi dago ez dela hamar lerrotan kontatzeko moduko bidaia; ehunka bizipen ditu, gainera.

Joxanek txiki-txikitatik izan du Afrikara joateko gogo, baina lagunartean edo etxean esaten zuen bakoitzean, ez zioten kasu handirik egiten. Halako baten, Afrikara joateko bidaia txartelekin azaldu zen, eta etxean esan zioten lehenengo gauza izan zen han galdu egingo zela. Egia esan, lehenago ez zuen horrelako bidaiarik egin, eta ingelesez ere ez zekien oso ondo. Hala ere, Afrikara joateko nahia handiegia zen, eta orduan zen une egokiena: “Orain edo sekula ere ez. Horixe neukan argi. Motxila eta kanpadenda txiki bat hartu, eta bidaiari ekin nion”.

Joxanek Hego Afrikan hasi zuen bidaia, Johannesburgon. Eta Euskal Herrira itzultzeko hegazkina sei hilabete geroago zeukan Hego Afrikatik milaka kilometrora, Kenyan, hain zuzen ere. Johannesburgon egin zuen lehenengo gauza automobil bat errentan hartzea izan zen: “Ingelesez ondo ez nekienez, nahiko lan izan nuen automobil bat errentan hartzeko, baina azkenean lortu nuen”. Horren harira, Johannesburgon, Ingalaterran moduan, ezkerretik gidatzen dute: “Automobilera ezkerreko atetik sartu nintzen, eta hara! Bolantea beste aldean!”. Lehenengo egunetan sekulakoak egin zituen Joxanek automobilarekin. Kruger parke nazionalerako bidea hartu zuen, eta astebete egin zuen han. Portugal bezain handia da Kruger parke nazionala, eta gauren bat edo beste animalien artean pasatu zuen Joxanek, bere saltsan. Gu ere elefante eta lehoi artean geratuko gara, datorren astera arte.



“Orain edo sekula ere ez. Horixe esaten nion neure buruari”

XABIER URZELAI



Argazki ikusgarriak atera ditu Joxanek Afrikan.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



Nagusilaneke Juan Mari Garitanok eta Jabier Arangurenekin egin zuten aurkezpena. Jende asko izan zen.

IKER BARANDIARAN

Nagusilan, erretiratuek erretiratuei laguntzeko ekimena, gurera heldu da

IKER BARANDIARAN

Joan den eguaztenean, Nagusilan erretiratu boluntarioen elkarteak aurkeztu zuten Saiolango erakinean (lehenengo Cerrajerak). Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak Saiolanen duen bulegoan egin zuten aurkezpena, eta Gipuzkoako Nagusilango presidente Juan Mari Garitanok eta Arrasateko Nagusilango koordinatzaile Tomas Atxak hartu zuten parte.

Nagusilan ez da elkarte berria, baina orain, ibarrean ere eratzeko asmoa dute. Hain zuzen ere, Gipuzkoan herri askotan dago eratu, baita Bizkaiko eta Arabako herri batzuetan ere. Euskal Autonomia Erkidegoan 600 bat boluntario ditu. Nagusilango arduradunek eta gure ibarreko erretiratu batzuek Debagoienean Nagusilan taldea eratzeko premia ikusi zuten, eta horretarako lanean hasi dira.

Nagusilanen helburu nagusia da erretiratuak koordinatzea eta horiek, erretiratuek, beste

erretiratu eta minusbaliatu batzuei laguntasuna ematea. Nagusilan elkarteak bazkideek dirua jarri beharrean, beste erretiratu batzuei laguntzeko konpromisoa hartzen dute: "Norberak ahal duena eta gura duena emango du, eta esker onekoa izango da ematen duena", azpima-

Erretiratuen zerbitzura

Nagusilaneke urteak daramatza erretiratuei zerbitzua ematen. Besteak beste, adinekoendako doako telefono arreta zerbitzua du, Zilarrezko zerbakia deritzona. 900 71 37 71 telefono zenbakian, erretiratu boluntarioek arreta eskaintzen diete bakardadean daudenei.

Lastèr, Nagusilan berbaldia eta txangoak antolatzen hasiko da.

rratu zuen Tomas Atxak. Hasiera baten, elkarteak Arrasaten eratu gura dute, eta hori egin ondoren, ibarrera zabaltzea.

LAGUNTASUNA EMATEA

Nagusilaneke bere eginbeharra ezagutzera eman gura du, erretiratuei laguntzeko boluntarioak batu daitezkeen eta, era berean, laguntza premia dutenek Nagusilani eska diezaioten. Zuk edo zure senitarteko batek laguntza premia badu, jarri harremanetan Nagusilanekekin.

Nagusilango boluntarioek etxeetara eta erretiratuen egoitzetara joko dute, erretiratuekin berriketan egiteko eta erosketak edo bestelako gestioak egiten laguntzeko. Bestalde, alzheimer gaitza dutenei dagokienez, gura dute prestakuntza berezia dutenak joatea, Nagusilango boluntarioek ez dute eta halako prestakuntza berezirik.

Horrenbestez, Nagusilan elkartearekin harremanetan jarri gura baduzu, jo Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak Saiolanen duen bulegora.

LABUR

Aratustek Abaroan ospatu gura dituzten bazkideek gonbidapenak jaso beharko dituzte


Abaroa zaharren elkarteak martxoaren 4an Aratustek ospatuko ditu. 18:30ean, ekitaldi berezia egingo dute, eta ospakizun horretan parte hartzeko interesa duten bazkideek otsailaren 25a aurretik Abaroako bulegoan gonbidapenak jaso beharko dituzte. Bulego orduetan egin beharko dute, eta derrigorrezkoa izango da Abaroako bazkide txartela eguneratua edukitzea.

1951ko eta 1958ko kintoeke urteroko ospakizunak antolatu dituzte martxoan

1958ko kintoeke -1937an jaiotakoak- egun handia ospatuko dute martxoaren 15ean. Meza eta bazkaria izango dituzte. Martxoaren 9a baino lehen Jose Riviereri deitu beharko diote (943 79 10 57), eta 10 euro ordaindu. 1951ko kintoeke -1930ean jaiotakoak- martxoaren 1ean ospatuko dute. Meza eta bazkaria izango dituzte. Izena emateko, 943 79 80 08 telefonora deitu (Juan Jose Uribarren).

Toki Argi elkarteak Miramongo Kutxaespaziora txangoa antolatu du

Santa Marinako Toki Argi zaharren elkarteak Miramongo Kutxaespaziora txangoa antolatu du martxoaren 14an. 09:00etan, Musakolako zaharren egoitza ondokit irtengo dira. Miramongo Kutxaespaziora joango dira, eta hura barrutik ikusi ondoren, Aginagara joango dira, eta Aginaga izeneko sagardotegian bazkalduko dute. 20 euro ordaindu behar dira (Kutxaespazioko sarrera barne).



Osasunaren gaineko berbaldia Abaroan

Eguaztenean, hilaren 19an, Abaroako erretiratuen elkarteak berbaldia antolatu zuen. Berbaldiaren izenburua hau izan zen: *Burmuin osasuntsuak gorputz osasuntsuetan*. Hizlaria Joseba Muñoz izan zen, eta Abaroako aretoa lepo bete zen. Erretiratuak adi-adi egon ziren haren aholkuak entzuten. //I.B.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768



ARRASATE
Josu Gomez
Otsailaren 22an, 13 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



GARAGARTZA
Joxe Mari Urrutia
Otsailaren 22an, urtebetze. Zorionak! Etxeko-en partetik.



ARRASATE
Montse Armijo
Otsailaren 19an, urtebetze. Zorionak! Agurtzeneren partetik.



ARRASATE
Nerea Ugalde
Otsailaren 8an, 13 urte.
Zorionak, *guapetona!* Koadrilakoak.



ARRASATE
Myriam B. de Heredia
Otsailaren 22an, urtebetze. Zorionak, Mararen eta Ikerren partetik.



ARRASATE
Asier Delgado
Otsailaren 25ean, 7 urte.
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Mikel Lagunilla
Otsailaren 25ean, 28 urte.
Zorionak! Txomin eta familiakoak.



ARRASATE
Bittor Arriaran
Otsailaren 22an, urtebetze. Zorionak! Abigail eta ondokoa.



ARRASATE
Aintzane Eguskiza
Otsailaren 20an, 41 urte.
Zorionak! Mikel, Ane eta Jose Mari.



ARRASATE
Maria Gerrikabeitia
Otsailaren 26an, 6 urte.
Zorionak! Familiakoak eta Maider.



ARRASATE
Maialen Gallardo
Otsailaren 22an, 5 urte.
Zorionak! Aita, ama eta, bereziki, Ander.



ARRASATE
Mikel Albistur
Otsailaren 19an, 24 urte.
Zorionak! TMT.



ARRASATE
Igor Herrarte
Otsailaren 21ean, 24 urte.
Zorionak! TMT.



ARRASATE
Nerea Urrea
Otsailaren 25ean, urtebetze. Zorionak! Suso eta bere lagunak.



ARRASATE
German Moreno
Otsailaren 22an, urtebetze. Zorionak! Jonen eta Enekoren partetik.



ARRASATE
Eneko González
Otsailaren 25ean, 7 urte.
Zorionak! Jon, aitaxo eta amatxo.



ARRASATE
Lucas Bergaretxe
Otsailaren 26an, urtebetze. Zorionak! Eider, Gor-ka, Sara, Ander eta Andoni.



ARRASATE
Alaitz Barrutia
Otsailaren 17an, 2 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Loli Miner
Otsailaren 22an, urtebetze. Zorionak! Arrasateko ilobak.



ARRASATE
Aitor Marco
Otsailaren 22an, 2 urte.
Zorionak! Ama, aita, Rakel eta familiakoak.



ARRASATE
Felipe Marco
Otsailaren 23an, urtebetze. Zorionak! Märta, Rakel eta familiakoak.



ARRASATE
Nayade Isturiz
Otsailaren 16an, 12 urte.
Zorionak eta muxu handibat! Familiakoak.



ARRASATE
Jenifer Cucalón
Otsailaren 18an, 12 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Daniel Rosado
Otsailaren 20an, 13 urte.
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Nahia Zeziaga
Otsailaren 21ean, 7 urte.
Zorionak! Amatxo, familia eta *Cambril* komandoa.



ARRASATE
Arrate Izquierdo
Otsailaren 23an, 13 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Marijo Etxenausia
Otsailaren 24an. Zorionak! Izaskun, Maite, Leire, Ane eta etxeak.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.


Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu haren argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.
Argazkia urtebetetze eguna baino astebete lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

50eko hamarkadan non zegoen Arrasateko igerileku bakarra?
Arrastoa: emakumeek debekatuta zuten hara sartzea.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!



ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Milka txokolate barra
125g+25g doan

0,69€ 115 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

TXARO PAGALDAIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Txaro!
Galderen erantzun zuzena:
Udalan.

ARRASATEKO HISTORIA

Jose Maria Arriaran 'Txispas' langile militantea gogoan

JUAN RAMON GARAI


Orain dela egun gutxi, Jose Maria Arriaran Ortueta Txispas arrasatearra hil zen Mont de Marsan herrian. 1947an iritsi zen hara, Brigada Sozialeko eta Poliziako buru Meliton Manzanasesengandik ihesi. Izan ere, 14 urterekin Arrasateko Gazte Sozialisten taldean hasi zuen militantzia politikoa, eta hil den arte alderdi komunistako militante sutsua izan da.

1934ko urriaren 5eko Langileen Iraultzan hartu zuen parte; armak eskuan zituztela, herria hartu eta Errepublika Sozialista ezarri zuten iraultzaileek; horrekin batera, dirua abolitu zuten eta berdintasunaren alde egin zuten.

Baina Arrasateko beste ehun bat lagunekin batera atxilotu zuten Txispas, eta 14 hilabete egin zituen preso. 1936ko otsailean utzi zuten aske. Urte bereko martxoan, Gazte Sozialistak eta Gazte Komunistak alderdiak batu egin ziren eta Jose Maria Arriaran erakunde berriaren (Gazte Sozialista Bateratuak) idazkari aukeratu zuten.

Altxamendu faxista gertatu zen egun berean, bere burua boluntario aurkeztu zuen Herriko Etxean

Altxamendu faxista gertatu eta egun berean, bere burua boluntario aurkeztu zuen Herriko Etxean (trinketean). Donostia askatu zuten milizianoen artean izan zen, eta, besteak beste, *Dragones* batailoian ibili zen. Baina preso hartu zuten berriro. Klandestinitatean ere ibili zen, eta 1943ra arte ez zen Arrasatera itzuli. Edozelan ere, bitartean ez zen geldirik egon. 1936an, *Dragones* batailoian ibili ziren beste 30 kiderekin batera batzar bat egin zuen. Batzar haren ostean, alderdi komunistak sortu zen berriro. Eta handik 1947ra arte, etengabe egin zuen Errepublikaren alde. Baina 1947an, Jose Mari Arriaranen izena Meliton Manzanasesenganaino iritsi zen, eta Txispas-ek ihes egin zuen



JUAN RAMON GARAI

Akizen (Frantzia) erraustu dute Txispas, bandera errepublikanoaren koloreekin eta bere txapelarekin.

Mont de Marsan herrira. Esandako moduan, alderdi komunistako militante izaten jarraitu zuen, hil den arte. Bandera errepublikanoaren koloreekin eta bere txapelare-

kin erraustu dute, Akizen. Txispas, arrasatear askoren moduan, Maisu Aranorekin ikasi zuten ikasleen belaunaldikoa zen; maisu hark ideia liberalak zabaldu zituen

ikasleen artean, eta arazo sozial eta politikoen aurrean sentibera den herria eraikitzen lagundu zuen. Gure herriaren askatasun sozialaren aldeko borrokan parte hartu zuen.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko otsailaren 21a / 54. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Matxain zabaltzeko lanak hasiko dituzte martxoan

UBANE MADERA

Laster, Matxain kalea konpontzeko lanak hasiko dituzte. Besteak beste, Bixili inguruan dagoen bidea zabaltzea da lanon helburua. Orain, lanak adjudikatu egingo dituzte.

Duela hiru urte, 2001ean, hain zuzen, Arabako Foru Aldundiak 66.000 euro pasatzeko dirulaguntza eman zion Aramaioko Udalarri Matxain kalea konpontzeko. Kale hura zabaltzea eta zolatzea zen asmoa; baita kaleko zubia botatzea eta berria egitea ere.

Horrela, bada, lanok egiteko proiektua eskatu zuen Aramaioko Udalak. Baina, proiektuaren arabera, zubia botatzea eta berria egitea ia 300.000 euro kostatu behar zen, eta, lehen esan bezala, Aramaioko Udalak jasotako dirulaguntza 66.000 eurokoa besterik ez zen.

Horren ondorioz, batetik, zubia bere horretan uztea erabaki zuen Aramaioko Udalak; eta, bestetik, bestelako lan batzuk egiten zebiltzala aprobetxatu, eta Matxain kalea ere zolatu zuten. Eta, atzerapen apurrarekin bada ere, orain, kalea konponduko dute. Lanak adjudikatzeko pro-



UBANE MADERA

Kalea estua dela-eta, 75 bat metrotan metro edo metro eta erdi zabalduko dute.

zesuan dabilta orain. Behin adjudikatuta, laster hasiko dituzte obrak; Aramaioko Udaleko Zerbitzu Teknikoek adierazi digute martxoa inguruan izango dela.

BIDEA ZABALTZEA

Egungo proiektuaren arabera, Matxain kalea zabaldu egingo

dute; kalearen zati baten, 75 bat metrotan, hain zuzen, metro bat zabalduko dute.

Lanik handiena Bixili base-riaren inguruan egingo dute, huraxe da-eta kalearen zatirik estuena. Goiko lursaileko lurra kenduko dute eta horma egingo dute, besteak beste.



Ruandaren ostean, Palestina

Ruandan eta Angolan bizi duten egoera ikusteko aukera izan genuen joan den astean. Medicus Mundiren eskutik, Afrikako Laku Handien gaineko errealitatearen berri eman zuten: gerrek utzitako hildakoak, errefuxiatuak, gosea... Besteak beste, diapositiba emanaldia eta hitzaldia izan ziren eta bidezko merkataritzan oinarritutako produktuak saldu zituzten. Barikuan, esaterako, herritar dezente elkartu zen areto nagusian. Ekimena Itur Zuri emakume elkarteak antolatu zuen. Bestalde, elkarte horrek berak Palestinaren gaineko hitzaldia antolatu du barikuan, hilaren 28an, kultura etxean, 18:30ean. Komite Internazionalistatetako kide Amaia Arrizabalagak egingo du hitzaldia.

HERRITARREN HITZA / Manex Agirre • Ikaslea

Erritmoz kanpo

Berandu banabil ere, merezi dit eta merezi dizue (batez ere garaiotako martxa kalenturosoa ikusita) udazkenean Donostiako Zinemaldiaren aitzakian berreskuratu genuen zerbait komentatzeak. Gasteiztuntuozat ere iritsi zen garai hartan zeluloide puska forman. Ivan Zulueta zinemagileari eginiko omenaldiaren baitan, beste gauza batzuen artean bere *Arrebato* filma berreman zuten Euskal Herriko zenbait aretoan, eta han izan ginen gu, palomitarik gabe, baina pelikula on baten apetituarekin.

Eta bai, merezi izan zuen. Kredituak *flash*-etan hastearekin batera argiak piztu zirenean, aretoan egon ginen bost edo seiok aurpegira elkar begiratzean sinetsi genuen merezi izan zuela. Pare bat ordu behar izan nituen errekupeperatzeko.

Arrebato bizitzak, naturak, gizakiek beraien baitan duten erritmo perfektuaren bilaketari buruz eginiko istorioa da. Zinemagile gazte bat horretan saiatzen da gau eta egun,



"Interesatzen zaidana erritmoaren kontu horixe da"

horrekin obsesionatzen da, horren inguruan egiten du negar eta barre, zeluloidearen (bizitzaren) erritmo perfektua zein den deskubritzen duen arte. Eta deskubritzen duenean zer gertatzen den ez dizuet kontatuko, norberak egin beharreko gauzak ere badaude eta munduan. Beraz, ikusi.

Kasu honetan interesatzen zaidana erritmoaren kontu horixe da. Zein da, bada, bizitzaren erritmo perfektua?

Ez dakigu. Baina filma ikusi eta gero, uste batean erortzeko arriskua dugu: egiten ditugun akzio, ekintza ulergaitzenak erritmoz kanpo egiten ditugunak direla pentsatzeko arriskua, goizegi/azkarregi edo beranduegi/geldoege eginiko gauzak dira irrazionalenak, lekuz kanpo daudenak, harmonia gabekoak. Artikulu hau idazten ari naizen momentuan Gipuzkoan 9 atxilotu egon direlako zurrumurrua, Irak/*Prestige* bonbardeo mediatikoa... sektario samarra badirudi ere, denak erritmo perfektu-rik eta harmonikotik kanpo eginiko ekintzak direla pentsatzeko arriskua dugu...

LABUR

Aratusteak datozela-eta, Mozorro Lehiaketa

Mozorro Lehiaketa antolatu du Udalak Aratusteetarako. Martxoaren 1ean izango da. Eta herritarrek taldeka zein banaka aurkez daitezke lehiaketara. Gero, martxoaren 1ean, 17:30ean, kalejiran irtengo dira lehiakideak. Kiroldegitik plaza-raino joango dira, eta han mozorrorik onenak eta orijinalenak sarituko dituzte. Guztira, sei sari emango dituzte: umeendako bi, 14 urtetik gorakoentzako beste bi eta mozorrorik orijinalendako beste bi. Horren ostean, 18:00etan, txokolata-jana egingo dute.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

| | |
|-------------------------------------|--------------|
| Osasun etxea (txandak) | 945 44 53 40 |
| Botika | 945 44 50 03 |
| Udaletxea | 945 44 50 16 |
| Ertzaintza (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Gurutze Gorria (Legutio) | 945 45 52 52 |
| San Martin Eskola | 945 44 50 04 |
| Taxia eta autobusak | 945 44 50 33 |
| Udal kiroldegia | 945 44 53 35 |
| Postetxea | 945 44 50 83 |
| Zuiako Eskualdea | 945 43 01 67 |
| Suhiltzaileak (Zubillaga) | 943 78 28 00 |

AUTOBUSORDUTEGIA

| ARRASATE | ARAMAIO | GASTEIZ |
|----------|---------|---------|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | |
| 20:30 | 20:45 | 21:05 |
| 21:10 | 21:25** | |

| GASTEIZ | ARAMAIO | ARRASATE |
|---------|---------|----------|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:20 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15* | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 18:45* | 19:00 |
| 19:30 | 20:10 | 20:00 |

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Eta bi izartxo dutenetan, auzoetara joateko garraioa izango da. Eskaeraren araberako autobusa erabili gura duenak, bezperan deitu beharko du honako zenbakira: 629 54 59 23

OHARRAK

ARETO FUTBOLA

Oraingo honetan zorioneko emaitzak ekarri dituzte Bañerako taldeek. Izan ere, gazte mailakoek 4-9 irabazi zioten CD Aurrera de Vitoria taldeari. Eta kadete mailako mutilek 15-5 irabazi zioten San Jose Nemesianos taldeari. Datorren astean, gazte mailako taldeak atsedean izango du. Eta kadete mailako mutilek eta neskek Izarran jokatu dute Lan eta Jolas taldearen kontra. Neskek 11:00etan dute partidua, Udal Kiroldegian. Mutilek, berriz, 12:00etan dute hitzordua, Ikastolako kiroldegian.

PALETA TXAPELKETA

Aurrera jarraitzen du aurtengo Paleta Txapelketak. Oraingo asteburuan ere izango dira partidua kiroldegian. Zapata eta domeka goizean jokatu dute laugarren jardunaldia. Hortaz, dagoeneko txapelketaren amaierarako bidean dira bikoteak.

ZINEMA


La historia de una gaviota filma emango dute domekan.

KULTURA

Ipuin Lehiaketako sari banaketa bihar egingo dute kultura etxean

Aratusteetatik gertu Txirritola Euskara Elkarteak Ipuin Lehiaketa antolatu ohi du. Aurten ere hala egin du, kale egin barik. Eta, 22 lan aurkeztu dituzte aramaiorrek. Lanok hiru mailatan daude banatuta: Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren ziklokoak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo ziklokoak. Eta, maila bakoitzetik bina lan sarituko dituzte Ipuin Lehiaketan. Horrela, Lehen Hezkuntzako artean, irabazleak 60 euro bonotan irabaziko du eta bigarrenak 48 euro bonotan. Eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako artean, lehenengoak 120 euro irabaziko du eta bigarrenak, 90 euro.

Bihar, zapatua, 13:00etan jakingo dugu zeintzuk diren irabazleak. Hain zuzen ere, Rosa Mondragónek, Divina Arriola-bengoak eta Xabier Agirrek osatutako epai-mahaiak aukeratuko ditu lehiaketako irabazleak.



BOTEPRONTOAN/ Mikel Bengoa · Bengoa garraio enpresakoa

“Taxian egin dut bidaiarik luzeena: Kroaziara, hain zuzen. Zortzi lagunendako taxi baten joan ginen”



Asteazpi eguneko eta eguneko 24 orduko zerbitzua eskaintzen du Mikel Bengoa arriolarrek Aramaion. Horrela esanda, badirudi hori astakeria hutsa dela, baina Bengoak Aramaioko taxi zerbitzua eskaintzen du egunero eta, horrez gain, autobus zerbitzua ere badauka; hortaz, uneoro lanerako gertu egon beharra dauka:

24 orduko zerbitzua eman beharrik ez zaitu estresatzen?

Bueno, moldatzen naiz. **Taxi zerbitzuaren barruan zerbitzu berezia ere eskaintzen duzu, ezta?**

Diputazioak jarri duen zerbitzuaren barruan, autobus linea erregularrari laguntzeko zerbitzua. Jendea baserrira eramaten dugu edo baserritik autobusera. Ordu jakinak daude zerbitzu hori emateko. Eta, eskola-umeen garraioaren zati bat ere taxiarekin egiten dugu: zenbait baserritako ibilbideak, hain justu. **Bestela, autobusa daukazu; noiztik?**

Orain dela 16-17 urte. **Izan ere, garraio negozio propioa daukazu, ezta?** Bai, autonomoa naiz. Neu eta beste gidari bi gabilitza lanean. Autobus bi ditugu, eta beste

taxi bi. **Noiz sortu zenuten enpresa?** Orain dela urte asko, ez dakit esaten zenbat. Aita eskola-umeen garraioan hasi zen lanean, eta neuk bide bera jarraitu dut eta geure enpresa apur bat handitu dut. **Gidatzea duzu gustuko?**

Baietz esan behar, ezta? Horretan hasi nintzen... **Zein zerbitzu eskaintzen duzue autobusarekin?**

Eskatu ahalako garraioa. Umeak eta langileak ekartzen ditugu, eta bestela, telefono bidez edozein zerbitzu eska daiteke: txangoak, sagardotegi-erako bidaiak... **Egin duzun bidaiarik luzeena?** Taxian egin dut bidaiarik luzeena: Kroaziara. **Aberatsen bat edo eraman zenuen, ala?**

Ez, ez. Ez dira horren aberatsak. Zortzi lagunendako taxia daukat, eta harekin egin genuen bidaiak. Oso polita izan zen. Merezki du hara joatea. Kroazian, Eslovenian... ibili ginen, eta oso inguru polita da. **Azkenaldian, jende dezente errepedeen egoerarekin kexatu izan da...**

Bai, betiko arazoa da. Gu ez gara nor gauzak zelan egin esateko. Baina, nire iritziz, orain dela hamar urte egin izan balute autobidea... egunero errepedean gabiltzanendako beste gauza bat izango litzateke. Arrasatetik Bergarara istripu dezente izan ohi dira; eta gertatu den azkeneko istripuan, adibidez, dena kolapsatu egin zen eta, horren ondorioz, autobusa berandu iritsi zen... **Hortaz, zure iritziz, errepede berriak behar dira?**

Nire iritziz bai; izan ere, hemen zirkulazio handia dago. Eta, gainera, garraio astun asko dabil; nire iritziz, zerbait behar da. Bide hauek nahiko kaskarrak dira, nahiko estuak. **Gidari ona izateko gomendiorren bat...** Hori gaitza da. Baina, adibidez, abiadura eguraldiaren egoerara moldatzea komeni da. Eta, jakina, alkohola edanez gero, ez hartu automobilik.

ZERBITZUAK



'GIDA 2003', KALEAN

Dagoeneko esku artean dugu Goiena Komunikazio Zerbitzuek ateratako gida komertziala. Joan den astean hasi ziren banatzen Aramaion. Eta jaso ez duenak edo gida eskuratu gura duenak Arrasateko Saiolan eraikinera jo beharko du, Goienaren egoitzara. Edo 943 71 23 91 telefonora dei dezake.

Iaz bezala, aurten ere gidak bost herritako telefono zenbakiak dakartza. Berritasunen artean nabarmentzekoak dira, adibidez, partikularren telefonoak ere agertzen direla eta gida osoa koloreetan dela.

Goienako Publizitate Sailak eskerrak eman gura dizkie gida egiten parte hartu duten bezero guztiei.

“Aita eskola-umeen garraioan hasi zen lanean, eta neuk bide bera jarraitu dut”

“Gidatzeko orduan, abiadura eguraldiaren egoerara moldatzea komeni da”

ERRETRATUZAHARRA

Arrasateko emakumezko erraketista

Joan den astean, pilota izan genuen berbagai; hain zuzen, *Zurdo de Mondragón* zena gogora ekarri genuen. Oraingo astean ere bide beretik segituko dugu; izan ere, Mondragoek pilotari ugari eman izan ditu urtetan. Gizonak ziren, batez ere, baina, emakumezko batek ere egin zuen bere lekua talde horren barruan: Justi Arenaza *Vasquita*-k.

Eskuz beharrean, erraketarekin jokatzeko zuten arrasatearrak. Izan ere, lehen, emakume dezente jokatzeko zuten erraketarekin; Eibarren, adibidez. 1932ko martxoaren lehen egun zuten debuta profesionalean;

13 urterekin bakarrik. Bi urte lehenago, Madrid pilotalekuan egunero kantxa garbitzen zuten, bi pezetaren truke. Erraketisten palkoan jarri eta partiduak ikusteko aukera ematen zion horrek.

Leku askotan jokatu zuten *Vasquita*-k. Adibidez, gerra denboran Bartzelonan ibiltzen ziren emakume pilotari onenak, beste hirietatik hara joandakoak. Gainera, pilotalekua jendez gainezka egoten zen; baita Donostian ere, Grosen. Eta, gizonezkoen partiduetan moduan, emakumezkoen ere diru asko jokatzeko zuten. Esan bezala, tresna moduan erraketa

erabiltzen zuten *Vasquitak*. Tenisean erabiltzen denaren antzerakoa da, baina lodiagoa, pisutsuagoa eta soka gogorragoekin, pilota askoz gogorragoa zen-eta. Gonarekin jokatzeko zuten, gona luzearekin eta mauka motzeko kamisetarekin; eta hasieran galtzerdi barik. Oinetan, berriz, abarketak zituzten; Ferrerias kaleko Bastidak egindakoak ziren, antisorgailuak egiten ziren leku berekoak.

Argazkikoak Justi eta Mirentxu Arenaza dira, Valentzian.

Argazkia: *Pilota* liburua
Informazioa: *Pilota* liburua
Urtea: 30-40ko hamarkada



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Erdiko kalea:
herriaren
muina

Arrasateko erdialdean dauden kaleak auzoak baino gutxiago aldatu dira. Erdialdeko etxeak eraberritu egin dituzte, zoria behin baino gehiagotan aldatu dute, eta etxe azpietan negozio berriek ateak ireki dituzte: dendak, tabernak, agentziak...

Arrasateko Erdiko kaleak herriaren muina izaten jarraitzen du, Iturriotz eta Ferrerias kaleekin batera.



≈ 1970

Garai hartan, etxe azpietan hainbat negozio zeuden. Egun, gaitza da erdialdean negozio bat jartzeko lokalen bat aurkitzea.



2003

Egun, erdialdea oinezkoendako egokituta dago. Erdialdean bizi izan edo lan egiteak abantailak eta desabantailak ditu.

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarriak

Zarugalde 38 • Tel.: 943 79 13 78

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 ♣ ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62


ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

arbolapeta



1. euskal selekzioaren cd-rom jokoa



902 010 735
Telefona 24 orduz.

Imajina dezakezun guztia!

- Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!
- Aukera ezazu taktikarik egokiena
- Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...
- Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
- Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...
- Jokoaren estatistikak
- Jokaldi onenen errepikapenak...
- Lau futbol zelai aukeran.
- Partiduak egunez, gaez, euriarekin...



euskal selekzioaren bufanda
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,
72 orduan
bidaltze
gasturik gabe



35,95
euro

Jokoa orain erosiz gero,
bufanda eta garraioa

DOAN

“JADEko langileok talde polita osatzen dugu, eta lanerako oso garrantzitsua da hori”

Badira lau urte Maribelek eta Manuk JADE ile apaindegia ireki zutela. Horiekin batera, Cristina eta Sonia dabilta lanean, eta Maribelen esanetan laukote polita egiten dute. Garrantzi handia ematen dio Maribelek horri, lankideekin gustura egoteari, alegia; lan egiterako orduan uste baino gehiago nabaritzen da eta. Ite apaindegira sartu eta berehala, argi eta garbi geratzen da ile apaindegi moderno dela: hormak kolore biziekin daude margotuta, musika, dekorazio ikusgarria... “Argi dago ile apaindegia jende gazteari dagoela zuzenduta, baina jende nagusia ere etortzen zaigu, bai emakumezkoak baita gizonezkoak ere. Horren harira, jende gazteaz gainera, nagusiak ere geroago eta ausartagoak dira itxura aldatzerako orduan”. JADEkoek orrazkera modernok egiten dituzte, eta eurek ere orrazkera ikusgarriak dituzte: kolore apur bat, luzapenak, ilea kizkurtuta...

Maribelen esanetan, euren sormen lana da: “Jendeak gauza berriak gura ditu, orrazkera berriak, eta orrazkera horiek egiteko beharrezkoa da sormena; horrek egiten du lan hau interesgarri”. Horretarako, baina, modaren gorabeherak ondo jakin behar dira: “Telebista asko ikusten dugu, jendeak telebistan azaltzen dena eredu moduan hartzen du eta. Horrez gainera, moda aldizkariak ere irakurtzen ditugu, orrazkera berriak ikusteko, batez ere. Azkenik, lan egiteko tresnetan ere dezente inbertitu behar da, urtero gauza berriak irteten dira eta”.

AHOLKULARI LANAK

Esan dugunez, askok itxura aldatu gura izaten dute, baina askotan ez dute argi izaten zer gura duten: “Hori ere gure lana da, aholkuak ematea, alegia. Aurpegiaren forma, azalaren kolorea, begien kolorea... Orraz-



Lantalde polita osatzen dute Maribelek, Manuk, Cristinak eta Soniak.

kera bat proposatzerako orduan gauza asko hartzen ditugu kontuan”. Itxura aldatzerako orduan, gainera, komenigarria ei da aldaketak poliki-poliki egitea: “Egun bate-tik bestera itxura guztiz aldatzea arriskutsua izan daiteke, ez zaudelako ohituta. Hobe izaten da gauzak poliki-poliki egitea, eta gustuko izanez gero, gauza ezberdinak probatuz joatea”.

JADEn trebeak dira luzapenak egiten: “Gazte jendeak geroago eta gehiago eskatzen du luzapenak egitea, eta modu askotakoak egin daitezke. Hori bai, luzapenak eta txirikordak egiteko denbora asko behar da”. Luzapenak eta txirikordak astelehentan bakarrik egiten dituzte. Ite apaindegia itxi egiten dute, eta horrelako lanak egiteko hartzen dute egun hori: “Lau ordu inguru behar izaten ditugu pertsona bati txirikordak edo luzapenak egiteko, lau ordu eta laurok batera lanean, jakina”. Luzapen sintetikoak egitea 180 euro kostatzen da eta luzapen naturalak garestiagoak dira, 300 euro ordaindu behar dira. “Azken baten, dirua da, eta orrazkera hori egin gura duenak argi izan behar du zer gura duen”. Maribelen esanetan, gaur egun dauden orrazkerekin gauza asko egin daitezke: “Ite gutxi daukatenek, bolumen gehiago nahi dutenek... Aukera asko dago jendeak ilearekin dituen arazoak konpontzeko. “Horrez gainera, betiko orrazkera eraman beharrean, gehienok itxura politagoa izango lukete kolore apur batekin, metxa batzuekin, orrazkera modernoagoarekin... Pertsona bakoitza mundu bat da, eta orrazkera ezberdinak daude pertsona bakoitzarendako”.

Argi dago, hortaz, itxura apur bat aldatu gura duenak JADEn aukera paregabea duela horretarako. Ezer egin aurretik JADEkoekin berba egitea da onena, eta haien gomendioak entzunda argiago izango duzue guztia. Probatzea da kontua.

Edertasun Gida

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

AUSART
Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • ☎ 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

ILEA

Ferrerias 14. 943 79 87 62

BITXORI
Ile apaindegia

Erdiko kale 52.
Tel.: 943 79 88 32

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 71 23 91 telefonora